

Hans Harms

Ohar kritikoak eta irizpide praktikoak ingurumeneko gatazkak parte-hartzearen bidez konpontzeko

Hans Harms (Wilhelmshaven [Alemania], 1951) Gizarte Zientzietan lizentziaduna eta Filosofian doktorea da Witten/Herdecke Unibertsitatetik. Donostian bizi da 1989. urtetik, eta, bertan, hainbat ikerketa egin ditu euskaldunek justiziaren administrazioaren aurrean duten jarrerari buruz eta lan-merkatuko gertaera berriei buruz, Bremen-go Unibertsitateak gidatu eta Volkswagen Fundazioak finantzatu duen azterlan europar baten barruan. Esku hartzeko gune parte-hartzaileen metodologia sartu zuen Espainian, eta Euskal Herrian (Idiazabal, Astigarraga, Urbina-Maltzaga autobidea), Katalunian (Sant Quirze del Vallès, Calafell) eta beste herrialde batzuetan (Belgika eta Ekuador) egin ziren lehen esperientziak jarri zituen abian. Hainbat artikulu idatzi ditu herritarren partaidetzari buruz, eta, orobat, artikuluetan agerian jarri du kontraesankorra dela ingurumena babestu nahi izatea eta, aldi berean, hazkunde ekonomikoan oinarritutako ekonomia- eta gizarte-ereduari eta enpleguari heltzea, gizartea antolatzeko dagoen tresna bakarra balitz bezala. Era berean, hainbat batzorde eta fundazioetako kidea da; hona hemen zein diren: Soziologiako Nazioarteko Elkartearen Research Committee 26 (Sociotechnics-Sociological Practice); Mundu Arduratsu eta Solidario baterako Ituna, Gizonaren Aurrerapenerako Charles Léopold Mayer Fundazioa (Lausana-Paris); Gizakiaren Erantzukizunei buruzko Gutuna garatzeko batzordea eta Foro Txinatar-Europarra.

Lanaren hasieran, sakon aztertu ditugu gero eta mehatxagarriagoa den etorkizuneko ingurumen- eta klima-egoeraren aurrean erantzun egokia emateko dugun ezintasun nabariaren arazoak. Estatu Batuetan egin diren hainbat ikerketaren arabera, pertsonak talde txikietan biltzen direnean arlo honetan konponbideak aurkitzeko, jarrera aldatzen da. Horrek argi erakusten digu herritarren parte-hartzea ezinbestekoa eta egokia dela. Herritarren partaidetzaren aldeko beste argudio bat demokrazia ordezkatzaileren krisia da, bereziki, epe luzeagoko arazoan aurrean erantzun egokia emateko duen egiturazko ezintasuna. Alabaina, edozein formula ez da baliagarria, herritarrek erabakiak hartzeko prozesuetan parte har dezaten lortzeko. Hargatik, hemen, kalitateko irizpide batzuk azaldu ditugu, erabiliko diren tresnak baliozkoak eta eraginkorrak izango direla bermatzeko. Azkenik, eskura ditugun mekanismoak aztertu ditugu irizpide horien arabera, hartara, argi jakin ahal izateko zein diren egokienak ingurumenaren arloan ezartzeko.¹

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2	5. Parte hartzeko mekanismoen azterketa	
2. Demokrazia ordezkatzaileren krisia	3	laburra	9
3. Erronka: herritarrek parte hartzeko beharra	5	6. Ondorioak	12
4. Parte-hartzea baliozkoa eta eraginkorra izango dela bermatzeko kalitateko irizpideak	6	Oharrak	14
		Bibliografia	14

1 Sarrera

The age of stupid 2050. urtean kokatutako film amerikar baten izenburua da. Filmeko protagonistek beren buruari galdetzen diote ea nola liteke mende hasierako biztanleak hain ergelak izatea: bazekiten zer gerta zitekeen eredu ekonomikoa eta soziala errotik aldatu ezik, eta, hala ere, ez zuten ezer egin hori konpontzeko. Hemendik 2050. urtera, badugu tartetxo bat oraindik; eta, beraz, beharbada ingurumenaren inguruko mehatxuari buruz dugun pertzepzioa aldatuko da, eta behar diren neurriak hartuko ditugu lausoki ikusten ditugun hondamendiak gerta ez daitezen.

Horixe da, behintzat, Anthony Giddens, Ulrich Beck, Riley Dunlap, Alan Irwin edo Ronald Inglehard bezalako egileei irakurriz gero aterako genukeen ondorioa, egile horiek lantzen dituzten kontzeptuen eta arrazoibideen arabera, nola halako lotura zuzena baitago ezagutza zientifiko-teknikoaren eta aurreikuspenen moduko gatazka sozioekologikoen artean: «gatazkak sortuko lirakeke, zeren, proiektu, substantzia edo instalazio jakin batzuek ekosistemen egoerari edo gizakia-oren osasunari begira dituzten ondorio kaltegarriak buruzko ikerketa zientifikoen berri duten biztanleek gaitasun eta joera gehiago baitute horiei aurre egiteko». Ildo horretan, Dunlap-ek hauxe dio: «susmatzen dugu etengabe azalduko dela ebidentzia zientifiko berri bat gizakia-oren jardueren ingurumenaren kalitatean duten eragin hilgarriari buruz eta horrek gizakien (eta beste espezie batzuen) ongizateari begira dakartzan mehatxuei buruz, eta, horren ondorioz, etengabeko presioa egongo dela, munduari buruzko ikuspegi ekologikoago bat izan dezagun» (Dunlap eta beste batzuk, 2000: 439; saiakera bikain honetan aipatua: Sempere, Martínez eta Garcia, 2007: 2).

Lan horietako gehienak aurreko mendean argitaratu ziren, hain zuzen, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran edo erdialdean, hau da, gutxienez hiru bosturteko dituzte, eta, zoritxarrez, ezer gutxi aldatu da ildo horretan. Harrigarria da 2009ko abenduan Kopenhagen izandako klimari buruzko azken gailurrak izan zuen porrot izugarria. Izan ere, ordurako, aldizkari espezializatuetan argitaratutako lan zientifiko batek ere ez zuen ukatzen klimaren aldaketa, ez horrek gure planetan giza bizitza egon zedin izango zituen ondorio penagarriak ere. Mendia mugitu da (planeta osoko agintzailerik garrantzitsuenak bildu dira) eta arratoi batez erditu da. Are harriagoa da herritarrek porrot horren aurrean izan duten erantzuna, ez baitute ia ezer egin. Beste gai batzuen aurrean —adibidez, erretiro-sistemaren erreformaren aurrean— erantzun jendetsua izan dira, hala nola, manifestazioak edota grebak. Gai honek, berriz, ez du zalapartarik sortu iritzi publikoan; prentsan eta beste hedabide batzuetan iritzi batzuk azaldu dira, eta besterik ez.

Nola azalduko dugu erabateko axolagabetasuna adierazten duen jokabide hori, aurreikuspenen arabera, etorkizuneko belaunaldientzat izango dituen ondorio ilunak ikusita?

Euskal Herriko Unibertsitateko Garapenaren eta Mundu Ekonomiaren Institutuko (Hegoa-ko) Ekonomiako katedraduna den Koldo Uncetak gertakari hori aztertu du (2010), eta ondorio hau ateratu du: Kopenhagen bildu ziren ordezkari politiko gehienek ez dute aldaketa klimatikoa ikusi haien jarrera arriskuan jar dezakeen zerbait balitz bezala, ez dute iritzi publikoaren presioa sentitzen modu erabakigarriagoan aritzeko, ezta herrialde demokratikoetan ere, hau da, haiek boten mende dauden herrialdeetan. Eta hala da, arazoaren ondorio gehienak ez dituztelako oraingo belaunaldiek pairatuko, hurrengo belaunaldiek baizik; aitzitik, oraingo belaunaldiak dira presioa egiteko eta boto emateko ahalmena dutenak. Bestela esanda, neurriak hartzeko eta aldaketa klimatikoaren mehatxuari aurre egiteko borondatea ez da epe laburrean biziraupena lortzeko bete behar

dugun kontu bat; aitzitik, arrazoiren mende dago, eta etorkizuneko belaunaldiekin dugun elkartasunaren mende ere bai. Horren ondorioz, prestakuntza hobea duten gizarteak edo elkarteak dira arazo honekin kezkatzen eta mugitzen hasi diren bakarrak; munduko zenbait tokitan haiek dira arazo honen lehen ondorioak nozitzen eta larritzen hasi direnak. Alabaina —Uncetak bere buruari galdetzen dioenez—, toki batzuetako arazo nagusia egunez egun bizirik irautea dela ikusita, nola izango dute toki horietan belaunaldien arteko elkartasuna, baldin eta ustez ondo prestatuta dauden eta ongizate-maila handia duten gizarteetan —gure artean— ezintasun nabaria badago elkartasun hori agertzeko? Bere erantzunaren arabera, belaunaldien arteko elkartasunak lurraldeen arteko elkartasuna izan behar du oinarritzat; hala, bada, etorkizun bideragarria eraiki nahi badugu etorkizuneko belaunaldientzat, ezinbestekoa da oraina zuzenagoa izatea: «Bestela, lehengoan bezala jarraituko dugu, amildegirantz aurrera egiten, gure agintariak beste alde batera begira dauden bitartean». Guztiz bat nator hausnarketa horiekin, baina, hala ere, nire ustez, ez dugu denbora aski egoera zuzenago batera iristeko, ez eta hartu beharreko neurriak hartzeko ere. Bi arloetan aritu behar dugu aldi berean.

Hainbat azterlanek eta ikerketek egiaztatzen dute lehen esandakoa, hau da, biztanleak ez direla gai gizakia-oren bizi-tzarako dauden arrisku nabarietara erantzuna emateko.

Ingurumeneko Erabakien Ikerketa Zentroak (Center for Research of Environmental Decisions, CRED) azterlan bat egin du Columbiako Unibertsitateko (AEB) banakako eta taldeko erabakietako orientabide estrategikoari buruz. Horren arabera, planeta berotzeko prozesua aukera paregabea izan daiteke epe luzeko konpentsazioen aurrean herritarrek zein erantzun ematen duten aztertzeko, biharko zalantza onura klimatikoaren truke gaur sakrifizioak egitea herritarrei zer iruditzen zaien jakiteko. Pertsonekin saiakuntza zientifiko batzuk egin zituzten, eta, horren ondoren, ondorio hau ateratu zuten: oro har, geroratuak onurak ez zaizkigu gustatzen. Arazo ekologikoei dagokionez, esan daiteke joera gutxi dugula gure bizimodua aldatzeko etorkizunean izan daitekeen aldaketa klimatikoa saiheste aldera. Eta, okerrago dena, ikerketa horren arabera, gure «kezken erreserba mugatua» da; horrek esan nahi du, beste arazo bat agertzen denean, ez garela gai aldaketa klimatikoari diogun beldurrari eusteko, adibidez, burtsaren porrota, edo familiako edo norberaren larrialdi bat denean (Gertner, 2009). Gaur egungo krisialdi ekonomikoak tesi hori baieztatzen duela ematen du: horrelako egoeretan, epe luzeagokoak diren arazoak ahazten ditugu, eta premia zikoa dena konpontzei ekiten diogu.

Disonantzia kognitiboak nahiko argi azaltzen du epe luzeko arazoaren ostruka baten moduan jokatzeko dugun ohi-tura hori: gizakia ez da gai bi balio aldi berean onartzeak sorrazten dion kontraesanean bizitzeko, eta, hori dela-eta, balioetako bat ezabatzen du bere kontzientziaz. Hala, bada, hautua egin behar dugu berehalako gozamenaren eta etorkizunean hondamendirik egon ez dadin ingurumena zaintzearen artean; eta, horretara iritsita, nahiago dugu gure lur orotako ibilgailuaz gozatzea, edo Yucatanera egindako eztei-bidaiaz, etorkizuneko belaunaldien bizitzaz kezkatu beharrean.

Baina kontraesan hori ez dugu norbanako gisa bakarrik; gizarte gisa ere badugu. Gaur egungo krisialdiak argi erakusten digu gehiago kezkatzen gaituela gure lanpostuak eta bizimoduak, ingurumenak baino. Kontua da ezinezkoa dela, alde batetik, aldaketa zorrotzak bultzatzea era guztietako kutsatzaileak gutxitzeko eta, beste aldetik, eta aldi berean, lege bat sustatzea «hazkunde ekonomikoa azkartzeko», Alemania jokatzeko ari den moduan. Eta hortxe dago arazoaren muina. Egia esan, krisia ez da sistema ekonomikoaren akats bat. Gizartearen antolatzearen ereduak da huts egiten duena, tresna bakar batean oinarritzen delako: enpleguan. Ez dugu ulertzen, edo ez dugu ulertu nahi, enplegua ezin dela ekonomia-, gizarte- edo ingurumen-arloan ditugun arazoaren konponbidea izan. Kontrakoa gertatzen da: enplegua da arazoaren arrazoi nagusia, horretan oinarritu baikara, eta errenta banatzeko

tresna bakar modura hartu baitugu. Hala, bada, orain ez dugu lan egiten ekoizteko (gizarteak behar dituen produktuak eta zerbitzuak), kontrakoa baizik: ekoizten dugu (berez behar ez ditugun eta merkaturatzeko gero eta txarragoak diren produktuak eta zerbitzuak) lan egiteko. Adibide bat jartzeko, barreatze-bonben fabrika batean lan egiten duen langileak bezala jokaten dugu, langile horrek ondotoxoa baitaiki produktu hori etikoki oso badaezpadakoa dela, baina, lanerako hautabiderik ez duenez, bere lanbidea babesten du eskura dituen bitarteko guztiak erabilia.

Puntu honetara iritsita, idazki honen hasieran aipatu dugun filmaren izenburura itzul gaitezke, eta, hala, ondorio gisa esan dezakegu ezin dela ezer egin; Albert Einstein-ekin batera, egiaztatu ahal dugu munduan bi gauza baizik ez direla mugagabe —unibertsoa eta gizakiaren ergelkeria—, eta etsia hartu ahal dugu, «sumendiaren gaineko dantzara joz», ingelesez edo alemanez esaten den moduan.

Zorionez, lehen aipatutako CRED-en azterlanak bidezidior bat adierazten digu ataka honetatik ateratzeko: egia da, itxuraz, norbanakoa ez dela gai aurreikuspenen arabera ingurumen aldetik izango den hondamendiari erantzuna emateko, baina, hala ere, norbanako horiek taldeka aritzen direnean, beste era batean jokaten dute. Erabakiak hartzeko prozesuetan taldeek duten dinamikari buruz egindako saiakuntzetan, CRED-en zientzialariek argi egiaztatu dute zein erraza den hausaz hautatutako norbanakoak elkarlanean aritu daitezen lortzea. Emaizta horiei jarraiki, atsegin dugu biltzea, talde bateko kideak garelako sumatzea, dirudienek horrek berezkoa dugun gozamina ematen baitigu. Erkidego bateko kideak garelako gogora ekartzen badigute, orduan, erkidego hori erabakiak hartzeko sail estrategiko moduko zerbait bilakatzen da, eta ikaragarriko sakrifizioak egitera irits daiteke, esate baterako, Bigarren Mundu Gerran bezala.

Herritarren talde horiek aztertuta, zientzialariak ohartu ziren etengabe erabiltzen zituztela gizarteratzea adierazten duten hitzak elkarriketatzen —adibidez, *gu* eta *guri*—, eta taldeek norbanakoek baino egonari gehiago dutela geroraturako onurak kontuan hartzerakoan. Hitz gutxitan esanda, taldeek eta norbanakoek ez dituzte ondorio berberak ateratzen, eta, hala, beraz, taldean alde aurreko halako joera bat dago, eta horrek, epe luzean, onura ekartzen dio erkidegoari eta, hortaz, munduari.

Ikerketa horren emaitzek datu zientifikoekin egiaztatzen dituzte herritarrek parte hartzeko proiektuetan urte luzeetan lanean aritu garenok hiritar horiekin zuzeneko harremana izatean bizi izan ditugun gertakariak.

Peter Diemel-ek, hau da, esku hartzeko gune parte-hartzaileen (EGP) sortzaileak, zuzen aztertu zuen CRED-eko ikertzaileek deskribatzen dituztenen moduko egoerak —alegia, herritarrak biltzea, informata jasotzea eta eztabaidatzea, eta erkidegoaren alde epe luzeko konponbideak proposatzea— ez direla eguneroko bizitzan azaltzen, eta, beraz, modu artifizialean sortu behar direla. Jokaera-mota horren emaitza harrigarria da tartean dauden guztientzat:

- Politikariek, parte-hartzea aldarrikatzen duten arren, beldurra diote, eguneroko bizitzan haien aurrean dituzten herritarrak baitira kexatzen direnak, aldarrikatzen dutenak, protesta egiten dutenak, eta eskuratu dituzten esku-bideak eta dagozkien eskubide bereziak eskatzen eta defendatzen dituztenak.
- Adituen eta teknikarien ustez, arazo horietaz ezer gutxi dakiten pertsonak ez dira gai izango denbora laburrean oso konplexuak diren gaiak ikasteko eta horietan «aditu bilakatzeko».
- Noizean behin herritarrek parte hartu izan dute batzarretan, jendaurreko bileretan edo tankera horretako beste jarduerak batzuetan; baina, normalean, huts egin duten esperientziak izan dira, bakan batzuk baizik ez zirelako joaten, hain zuzen, militanteenak eta interesa zuten taldeetako edo bestelako erakunde edota elkarteetako ordezkariak.

Gune hauetan izandako bizipena, berriz, berria da, desberdina, bizigarria eta suspergarria. Hargatik, gaur egun, herritarren parte-hartzea ez da iritzi publikoaren aurrean ondo geratzeko burutapen bat, bazik eta, etorkizun ez oso urrun batean hondamendiak eta gizarteko gatazkak saihestuko baditugu, hartu beharreko erabaki larriak, zorrotzak eta premiazkoak hartzeko dugun formula bakarra. Jakina denez, ingurumenaren eta aldaketa klimatikoaren arazoa da landu behar dugun gaitako bat, baina badira beste gai batzuk, aski garrantzitsuak, hala nola, gizartearen antolakuntza lanetik harantz joz, gizarte-segurantzako sistemak eraberritzea —osatsuna eta erretiroa—, pobreziaaren aurkako borroka, eta abar.

2 Demokrazia ordezkatailearen krisia

Arazo horiek eta, batez ere, gaur egun dagoen krisialdi ekonomikoa dira adibiderik onenak Albert Einstein-ek arrazoi zuela baieztatzen; Einstein-ek esan baitzuen, gizateriaren biziraupena lortuko badugu, gogoeta egiteko modu berriak behar direla, eta ezin ditugula arazoak konpondu, sortu genituenean izan genuen pentsamendu-molde berberera joz (Seeling, 1973). Ziurren, gaur egun, sekula baino aldaketa sakonagoak eta ikaragarriagoak gertatzen ari dira munduan, denboran barrena izandako gainerako aldaketak baino askoz larriagoak; eta, beraz, argi dago, berehalako etorkizuneko erronka izugarriei aurre egingo badiegu, ez dela aski oraina kudeatzea. Alabaina, gure ordezkari politiko gehienek hori baizik ez dute kudeatzen.

Edozein plangintza egiteko, hausnarketa egin beharko dugu aurki gertatuko diren aldaketa horiei buruz, eta dagoeneko gizarte-, ekonomia-, kultura- eta politika-inguruneari buruz. Zoritxarrez, oraindik ere ohitura dugu ohiko pentsamenduari heltzeko, edo —Einstein-i jarraiki—, orain ditugun arazoak sorrarazi zituzten ideia-mota berberei heltzeko, arazoak konpontze aldera.

Demokrazia krisian dago. Jakina, baieztapen horrekin ez dugu demokrazia balio edo kontzeptu bezala aipatu nahi, ezta demokraziaren alderdi guztiak ere —adibidez, era askotako ingurunetan agertzen dena: Venezuelan, Palestinan, Iranen, Sri Lankan, Kuban—. Ez, demokrazia liberal eta ordezkataileaz ari gara, herrialde honetan eta ingurune hurbilean ezagutzen eta bizitzen dugun moduan. Krisiaren zantzuak gero eta nabariagoak dira. Ikerketa Soziologikoen Zentroko gure gizartearen dauden arazorik larrienei buruz egin dituen azken inkestetan, hirugarren lekuan (langabeziaren eta egoera ekonomikoen ondoren) alderdiak eta klase politikoa agertzen dira, eta, Katalunian, berriz, bigarren lekuan. Alemanezko *Politikverdrossenheit* hitzak² oso ondo azaltzen du desiluziozko gertakari hori (Hermet, 1993; Perrineau, 2003), politikaz aspertuta egote hori ere bai. Ordezkari politikoen-gan eta alderdiengan zegoen konfiantza desagertzen ari da.

Horiek horrela, gero eta zailagoa da garrantzi pixka bateko erreformak egitea edo erabaki politikoak hartzea. *Lobby* indartsuen interesak eta herritarren talde jakin batzuek eskuratu dituzten eskubideen babesa direla-eta, ezinezkoa da egin beharreko aldaketak egitea. Politika ez da ausartzen gai jakin batzuk ukitzera, eta ukitzen baditu, zigorra jasotzen du.

Beharrezkoak —eta batzuetan premiazkoak— diren erabakiak blokeatuta daude, eta, hortaz, ondorioak etorkizuneko belaunaldiak pairatuko dituzte. Badirudi, hauxe dela goiburua: «Gure atzetik, uhuldea». Baina, jakina denez, jokatzeko edo, hobeto esanda, ez jokatzeko modu horrek ondorioak izango ditu. Eztabaidetan, hedabideen bitartez agertzen den *belaunaldien gerra* esaerak gutxi gorabehera adierazten digu zer etorriko zaigun bide beretik jarraituz gero.

Gutako gehienek ustez, demokrazia gobernatzeko dagoen modurik onena da, baina, bestalde, gutako gehienek mesfidantza diegu gure ordezkari politiko eta alderdi gehienei. Nobel saria irabazi zuen José Saramagok hauxe adierazi zuen Porto Alegren, 2002ko otsailean izan zen Gizarte Foroaren aurrean irakurri zuen txostenean:³

Egia da botoa eman dezakegula, egia da Parlamentuan izango ditugun ordezkariak hauta ditzakegula —boto emateko herritar gisa aintzatesten gaituen burujabetza beste baten eskuetan utziz, eta normalean alderdi baten bidez—, azken batean, egia da ordezkariak horien kopuruaren arabera eta gehiengo lortzeko beharra dela-eta egin beharreko nahasketa politikoaren ondoren, beti sortuko dela gobernu bat. Hori guztia egia da, baina egia ere bada ekintza demokratikorako aukerak hortxe duela hasiera eta amaiera. Boto-emateak aginpidetik kendu ahal izango du maite ez duen gobernu, eta beste bat jarri horren tokian, baina bere botoak inoiz ez du eragin nabaririk izaten eta ez du izango munduan —eta, beraz, bere herrialdean eta bere baitan— aginpidea duen benetako indar bakarraren gainean: jakina denez, botere ekonomikoaz ari naiz, demokraziak, definizioz, lortu nahi duen guztion onurarekin batera zerikusirik ez duten menperatzeko estrategiei jarraiki, multinazionalak arautzen duten boterearen zatiaz —gero eta handiagoa den zatiaz—. (El País, 2002/02/06)

Ez da beharrezkoa adibideak aipatzea enpresek eta partikularrek erabaki politikoak beren alde eta herritarren interesen aurka nola hartu dituzten ikusteko, baina bistakoa da erabakiak hartzeko modu horrek ez duela batera zerikusirik demokraziaren funtsarekin (informazioa, gardentasuna, jendaurreko eztabaida, etab.). Estatu Batuetako presidentea eta Bigarren Mundu Gerran jenerala izan zen Eisenhower ondo ohartu zen bilakaera oker horretaz, eta bere agintaldiaren bukaeran adierazi zuen gune militar-industrialak gero eta eragin handiagoa eta kaltegarriagoa zuela Estatu Batuetan. Eta lehenengo presidentea ere, George Washington mitioak, alderdi politikoei buruz zuen iritzia eman zuen:⁴

Nazioaren borondateak parte hartu beharrean, gutxiengo txiki baina maltzur eta ausart batek esku hartzen du. Ziurrena, denboraren poderioz, motor boteretsu bilakatuko dira, eta, haien bidez, oinarririk gabeko gizon handinahiek Gobernuak lapurtuko dituzte, beren xedeak lortzeko.

Azken urteotako gertakariak argi erakusten dute enpresetan dagoen oligopolizazio-maila handia dela, eta mendealdeko sistema ekonomikoa josta-adiskideen kapitalismoa dela. José Vidal-Beneyto-k Morgan Stanley bankuko Barton Briggs aipatzen du hitz hauekin: «Bagenekien joko-kasino batean geundela, baina uste genuen ez zela tranparik egiten». Hala ere, orain dela gutxi argitara eman diren iruzurrak ikusita, agerian geratu da tranparen inperioan bizi ginelako horiek horrela, egileak artikulu berean aipatzen dizkigu «nahaspilak, iruzurrak, maltzurkeriak, azpilapurretak, azpijokoak, negoziazio ezkutatuak, trikimailuak eta monopolioaren jardute zaharren sorta zabal osoa, ordenagailura egokitu-ta eta exekutibo eta enpresa eutsiezinen zerbitzuan jarrita» (El País, 2002/07/13).

Demokraziaren egiturak eta mekanismoak zaharkituta geratu dira. Azken urteetan eta hamarkadetan aldaketa gogorak izan dira arlo guztietan; alabaina, gaur egungo demokrazietan aspaldiko formula berberekin jarraitzen dugu. Demokrazia berritzeko eta egokitzeko, herritarrek gehiago eta era zuzenagoan parte hartu behar dute, gardentasun gehiago lortzeko, eta, era horretan, hartu beharreko erabakiak hartzeko legezotasun gehiago izateko.

Horiek horrela, alderdi politikoaren barruko egiturak beste arazo larri bat dira. Aldi batetik, alderdi horietan

dagoen militantzia oso txikia da.⁵ Bestetik, alderdien barruko egiturak ez dira demokratikoak eta ez dute parte-hartzea bultzatzen.

Gure demokraziak ordezkariaren ideia hartzen dute oinarritzat, eta ideia horren abiaburua ordezkariaren eta ordezkariaren arteko elkarrekiko harremana da, konfiantza, ideien trukean eta eztabaidan oinarritutako harremana. Jakina denez, benetako egoera oso urruti dago eredu horretatik. Gurutz Jáureguik zera esan zuen horri dagokionez:⁶

Indarrean dauden sistema demokratikoetan, demokrazia metodo soil bat baizik ez da, hautesleen botoen bidez buruzagitarako hautagaien arteko lehia askea arautzen duena. Hala, herritar gisa dugun gaitasuna mugatuta dago, dugun aukera bakarra gobernatuko gaituzten pertsonak onartzea edo ezestea baita. Alabaina, gaitasun horrek ere gehiago du teoriatik, benetako errealitatetik baino, zerrenda itxiak eta blokeatuak dituen gurea bezalako hauteskunde-sistema batean. Espainian, hauteskunde-prozesuko unerik garrantzitsuena ez da herritarrek botoa ematen dutenekoa, baizik eta beste hauteskunde horiek —sarritan pseudohauteskundeak direnak—, alderdi politiko bakoitzak zerrenda osatuko duten hautagaiak zein diren erabakitzeke egiten duena. (El País, 1996/02/21)

Oro har, erabaki politikoak zeharka baizik ez dira nabaritzen. Normalean, erabakitzeko prozesu horietan, herritarrek duten zeregin bakarra ikusle hutsa izatea da, edo, bestela, administrazioko prozedurek legezkotzat jo dituzten erabakien onuraduna edo biktima izatea. Hala ere, gero eta zabalago dago onartuta, guztion onura epe luzean babestuz garapen iraunkorra bermatuko duten erabaki politikoak hartzeko, herritarrek behar ditugula ezinbestez, eta ezin dugula jo haien aurka. Jean-Marc Levy Leblond-ek honela bukatzen du:

Oraingo egoeran, bi mendetan landu diren demokraziaren tresnak ez dira eraginkorrak, haien eraginkortasunaren mugarekin egin dute topo. Eta demokraziaren garaipen orokorraren aurrean gaudela esaten badugu ere, nire ustez, aurrean duguna demokraziaren arrakasten amaiera da. [...] Hortaz, nire ustez, seme-alabei transmititzen diegun zera hori arazo bat da, arazo handi bat; hau da, forma demokratikoak berriz asmatzeko beharra dago, orain ezagutzen dugunarekin alderatuta ideia bezain berriak diren formak, ideia guztiz barregarria baitzen, orain dela hiru mende biztanleriaren egoera orokorra zein zen kontuan izanda. Utopia bat zen, utopia egia bilakatua zen, eta ondo ibili da. Orain beste batzuk asmatu behar ditugu, bestea bezain indartsuak direnak behintzat. (El País, 1993/09/30)

Oraingo krisiak areago bizkortzen du herritarrek eta politikariak elkarrengandik urrutiratzeko prozesua. Baina larriena da egoera horrek gobernuaren ekintza ere zailtzen duela, epe luzeko beharrezanaren eta epe motzeko hauteskundeetan zigorra jasotzeko beldurraren artean dagoen tentsioa dela-eta. Gaur egungo arazorik handiena ez da ezkerrean eta eskuinean artean dagoen desberdintasun ideologikoa, baizik eta herritarren eta haien ordezkari politikoaren artean dauden tirabirak, gero eta handiagoak baitira. Kanpo Harremanetarako Europako Kontseiluko kide sortzailea eta analista den Ivan Krastev-ek (2010) dioenez, dagoeneko demokrazia ez da konfiantza kontua, konfiantza eza kudeatzeko kontua baizik; eta oraingo krisiak erregimena aldatzeko uhinik sorrarazi ez badu, ardatza gobernarritasuna dela nabarmendu du.

Azterketa hori ez da inola ere gehiegizkoa, alde guztietatik azaltzen diren alderdi populistak eta totalitarioak aintzat hartuta (Italian, Grezian edo Estatu Batuetan, Tea Party). Adi-

bidez, orain dela gutxi, norik esango zuen Herbehereak bezalako herrialde demokratiko eta liberal batean eta Haga bezalako hiri batean egindako udal-hauteskundeetan alderdi eskuindar eta xenofobo bati⁷ emango ziotela boto gehien, eta, gainera, litekeena dela alderdi hori izatea hurrengo hauteskunde orokorretan boto gehien jasoko duena? *El País* egunkariak (2010/03/07) hauxe dio horri dagokionez: «**Holanda bezalako herrialde bat miretsia izan zen, erakusten zuen tolerantzia zela-eta, baina, gaur egun, badirudi labirinto populistaren amildegitik behera joateko zorian dagoela**».

Bestalde, Ekialdeko Europako herrialdeetan, zorrotz egin du atzerantz sistema kapitalistarekin bat egitea ontzat ematen duten herritarren ehunekoak, baina, era berean, zorrotz egin du atzerantz demokraziara igarotzea babesten duten herritarren ehunekoak.⁸

Laburbilduz: gure gizarteek aurrean duten arazorik larriena eta premiazkoena egitura demokratikoak egungo beharrezanetara egokitzea da. Izan ere, jakina denez, erabakiak hartzeko hautatu ditugun tresnek huts egiten badute, nekez izango gara gai erabaki egokiak garaiz hartzeko.

3

Erronka: herritarrek parte hartzeko beharra

Gero eta onartuago dago, demokrazia premiaz berritu eta egokitu ahal izateko, herritarrek era zuzenagoan hartu behar dutela parte. Pentsalari garrantzitsu askok —bakan batzuk aipatzeagatik, Aristoteles, Hobbes, Rousseau, Russel, Bobbio eta Touraine-k— idatzi dute zein garrantzitsua den herritarrek gehiago eta zuzenago parte har dezaten, hartara, erabakiak hartzeko prozesuak gardenagoak izan daitezten eta zilegitasun gehiago izan dezaten. Bernard Manin-ek honela deskribatu zuen *Los principios del gobierno representativo* liburuan (1998: 11 eta 15):

Gaur egun demokrazia ordezkatzalea deitzen dugun zera horren sorburua instituzioen sistema bat da (Ingalaterrako, Estatu Batuetako eta Frantziako iraultzen ondoren ezarritako instituzioena), hasieran, demokrazia-moldetzat edo herriaren gobernuztat jotzen ez ziren instituzioen sistema. [...] Hala, bada, XVIII. mendearen amaieran, ildo ordezkatzaleei jarraiki antolatutako gobernuak demokraziarekin batere zerikusirik ez zuela jotzen zuten; eta gaur egun, berriz, demokraziaren molde bat dela onartzen da.

XVIII. eta XIX. mendeetan, bi argudio hauek erabili ziren, batez ere, sistematik demokratikoenen aurka: lehenik, herritarrek ez zutela denbora aski gai publikoez arduratzeko; eta, bigarrenik, ez zutela behar adina gaitasun intelektualik horrelako gai konplexuei buruz gogoeta egiteko. Bi argudioak egokiak izan ziren bere garaian, orduan lanaldiak oso luzeak baitziren eta biztanle gehienak —%60tik gora— alfabetok zirelako. Baina harrez geroztik garaiak aldatu dira, eta gaur egun argudio horiek erabat zaharkituta daude. Badirudi demokraziaren muinera itzuli behar dugula, beste la —Pierre Calame-ren hitzekin esateko—, «**ondo gobernatzeko artea ez baita izango prozedurak abian jartzeko artea, baizik eta gizarteak arazoei bidezko erantzunak emateko talde-prozedurak diseinatzeak eta biziartzeko artea**» (Calame eta Talmant, 1997: 195). Frantziako ministro ohia zen Bernard Kouschner-ek hauxe adierazi zuen: «**Ezin da erreforma sakonik ezarri, herritarrek zuzenean parte hartu gabe**» (*El Mundo*, 2002/07/03).

Egitura eta instituzio gehiago behar dira, arazoak eta gaiak —batez ere epe luzekoak— agenda politikoan ageriko direla eta era egokian eztabaidatuko direla bermatzeko.

Gabezia horiek beteko baditugu, administrazioko erabakiak hartzeko dauden prozedurak aldatu behar ditugu: gardenagoak izan behar dute, eta herritarrek parte hartu behar dute. Erabakiak hartzeko eta prestatzeko administrazio-prozedurak erantzuna eman behar dio gero eta handiago den konplexutasun teknikoari eta sozialari. Egoera zail horretan, garrantzitsuagoa da parte hartzeko prozedurak izatea, bazuetan erabakia bera baino garrantzitsuagoak izan ere. Bestela esanda, erabakiak hartzeko prozedura baten balioa, sarritan, erabakia bera bezain garrantzitsua da, edo are garrantzitsuagoa ere bai; izan ere, baliozkotasun hori prozeduraren arrazionaltasunaren eta egokitasunaren arabera neurtzen da maiz. Herritarren parte-hartzearen bidez, tekniko-egokia den erabakia sozialki egokia eta onartua den erabakia izango da; ez dago beste biderik.

Gure demokrazia ordezkatzaleek duten egiturazko arduragabekeriaren arazoa ikusita, erabaki politikoek epe luzera dituzten ondorioak hartu behar ditugu kontuan, eta tresna berriak sartu behar ditugu kontrol politikoa lortzeko. Eta, horretarako, herritarrek zuzenean hartu behar dute parte nahitaez. Interesik gabeko herritarrek bitartekoak behar ditu bere zeregina onartzeko, eta parte hartzeko zentzu komune-ko aukera berriak emango dituzten iritziak garatzeko. Herritarren bidez zentzu komuneko parte-hartzea lortzen badugu —burokrazia eta *lobbyismo* gehiago eduki beharrean—, politika gizatiarragoa izango da.

■ Mundua gogoan, jardun tokian-tokian

Orain arte politikari buruz aritu garenean, oro har aritu gara beti; alabaina, ez dugu bakarrik politika «handia» aipatu nahi, tokiko eta eskualdeko mailak ere barne hartu nahi ditugu. Aipatu ditugun arazoetako askok —mundu mailakoak ere bai—, eta batez ere artikulua honetan aztertzen ditugun ingurumeneko gaiak, erantzun eta jarduera politikoak behar dituzte tokian bertan.

Ez da halaber hutsa azken urteetan, gure ingurune hurbilean, gaitzespen —eta manifestazio, indarkeriako ekintza, etab.— gehien sorrarazi duten erabaki gehienak ingurumeneko auziak izatea: Pasaiaiko kanpoaldeko portua, abiadura handiko tren, Zubietako errausketa-instalazioa, Muskizko koke-instalazioa, Usurbilen zaborra biltzeko eta birziklatzeko dauden tresnak, eta abar.

Egoera horretan, maiz ikusten da *nimby* izeneko gertara (*not in my backyard*, hau da, ez nire atzeko patioan), gaztelaniz *span* deitu dena (*si, pero aquí no*, alegia, bai, baina hemen ez). Hala, da, azpiegitura batzuen kokalekua zein izango den ikusita, herritarrek esaten dute azpiegitura horiek oro har beharrezkoak direla, ez dute hori ukatzen, baina argi uzten dute ez dituztela gertu eduki nahi. Semperre, Martínez eta Garcia-ren aipatutako lanean (2007: 6), gertakari hori dago aztertuta, eta Terra Altan (Tarragonan) energia eolikoa jartzeko izan zen gatazka jartzen da adibide gisa, hor desadostasun nabariak izan baitziren ekologisten artean: batzuek energia berriztagarri hori bultzatu nahi zuten oro har, eta beste batzuek (bertakoek), berriz, paisaia babesten zuten, parke eoliko gehiegizko garapenaren aurrez aurre jarrita. Hala, bada, ez da beti erraza izaten bereiztea epe luzeko taldeko balioetan eta interesetan oinarritutako aldarrikapenak eta, bestetik, ustez onargarriak eta zientifikoak diren argudioen atzean ezkutatuta dauden interes partikularrak.

Tokian bertan, ahaleginak egin dira azken urteetan herritarren parte-hartzea sakontzeko, adibidez, tokiko agenda 21eko hainbat proiektutan. Alabaina, emaitzak aski gorabeheratsuak izan dira, ez oso onak, batez ere herritarren benetako parte-hartzeari dagokionez. Sarritan, aholkularitza espezializatu batzuek idatzitako txostenak izan dira horren emaitza; eta tokiko talde eta elkarteetako ordezkariak mahai-inguru batzuk izatera mugatu da parte-hartzea. Horri buruzko adibide esanguratsu bat Irungo Udalaren web

gunean aurkituko dugu, tokiko agenda 21ean parte hartzera gonbit egiten dutenean:

Tokiko agenda 21eko prozesu guztiek duten oinarritzko zutabeetako bat herritarren parte-hartzea lortzea da, beste bide batzuetatik ezin lor zitekeen informazioa ematen digulako, eta legezketasun gehiago ematen dielako erabaki «publiko». [...] Hargatik, parte hartzeko instantziak sortu behar dira (laneko mahai sektorialak, iraunkortasunerako kontseilua...), eta, bertan, agente ekonomikoek eta sozialek Udalarekin batera aritu behar dute lanean, arazoak zehazteko eta irtenbideak aurkitzeko.

Bestela esanda, betikoek parte hartzen dute, eta herritar aruntak bazter uzten dira.

Tokiko agenda 21 helburu orokor bat —garapen iraunkorra— lortzeko tokiko esparruan egindako jardueraren adibidea da. Ez dugu horretaz xehetasun gehiagorik eman behar, Euskal Herriko udalerrri askok tankera horretako esperientziak jarri baitituzte abian. Eta gehiegizkoa izango litzateke esperientzia horiek, oro har, porrot gisa hartzea, adibide baliagarriak, aberasgarriak eta onuragarriak baitaude. Alabaina, era berean, ezin dira arrakasta borobiltzat jo, udalerrri guztietan ez daudelako bukatuta, toki batzuetan porrot egin dutelako, eta oro har hemen dagokigun alderdian huts egin dutelako, hau da, herritarren parte-hartzean. Ildo horretan, Irungoa adibide bat besterik ez da. Ez da zuzeneko eta benetako parte-hartze eraginkorrik egon, programan bestela aurreikusita zegoen arren; aitzitik, inkestak, zundaketak eta foro laburrak baizik ez dira egon, hau da, parte-hartzearen simulazioa izan da. Ez da gauzatu prozedurak behetik gora (*bottom-up*) jartzeko asmoa, eta, oro har, prozedura goitik beherakoa (*top-down*) izan da.

■ Herritarrek parte-hartze baliozkoa eta eraginkorra izan dezaten behar diren baldintzak

Modan dago herritarrek parte hartzea. Alderdi politiko guztiek haien hauteskunde-programan sartu dute, udalerrri guztiak horri dagokion araudia prestatzen ari dira, eta hainbat formula eskaintzen dituzte web gunean parte hartzeko. Alabaina, zera galdetu behar diogu geure buruari: zer da herritarren parte-hartzea? Zertan datza? Zein tresna dira gomendagarriak parte hartzeko, eta zein ez? Postontzi bat zabaltzen badugu, herritarrek auzoan egin beharreko inbertsioak dituzten eskakizunak sar ditzaten, udal-errekuntua parte-hartzailea izango al da? Azpiegitura jakin baten aldeko edo aurkako erreferenduma antolatzen badugu, eta biztanleriaren %15ek ere parte hartzen ez badu, eta parte hartzen duten gehienak azpiegituren erabiltzaileak badira (adibidez, astialdiko egiturenak), edo kaltetuak badira (espetze, zabor-tegi, era askotako azpiegiturenak...), orduan, hori baliozko bidea al da herritarrek parte hartzeko? Eta zer esan dezakegu *world kafe* tresnari buruz? Bertan, hainbat boluntario biltzen baita (eta horiek nortzuk dira eta noren ordezkartzan ari dira?), aurretiazko informaziorik izan gabe, udalerrri baten etorkizuneko garapenaren ildoak hien artean eztabaidatzeko. Adibide horiek guztiak azken urteetan Gipuzkoako udal garrantzitsuetan izan diren esperientziei buruzkoak dira.

Kasu horiek ardi frogatzen dute aldi honetan saiakuntzak egiten ari direla parte hartzeko dauden era guztietako metodoekin, ziurrena, eremu horretan aurrera egiteko borondatearekin (borondate onarekin). Hala ere, oraindik ez dago irizpide argirik parte-hartze hori benetan zer den zehazteko, ez eta jardute onak eta onak ez diren edo hain onak ez diren jarduteak bereizteko irizpideak eta baldintzak zein diren jakiteko ere. Herritarrek parte hartzeko programa eta proiektuetan dagoen arazorik larriena hau da: erabakiak hartzeko prozesuetan eragin izateko —manipulatze ez esatea-

gatik— beste bide bat zabaltzen dietela dagoeneko gainerako tresnak menderatzen dituzten horiei (alderdiei, instituzioei, erakundeei...), eta alde batera uzten dituztela betikoak, hau da, «ahotsik gabekoak».

Kontseilu Europarrak 2004. urteko azaroan Bartzelonan antolatutako zuen herritartasunari eta parte hartzeari buruzko biltzarrean, Norvegiako Gobernuako Eskualdeko Garapenerako Ministeriokoa zen Greta Billing-ek parte hartzeko mekanismoak kritikatu zituen, eta datu empirikoen bidez egiaztatu zuen, oraindik ere, hauteskundeak direla herritarrek parte hartzeko dagoen eta berdintasunezkoagoa den sistema. Esperientziak frogatu duenez, parte hartzeko beste mekanismo batzuetan esku hartzen duten gehienak goi mailakoak edo maila ertainekoak dira, hau da, era guztietako kapitala (soziala, kulturala, ekonomikoa...) metatzen duten horiek dira, ohiko mekanismoetan ordezkapen gehien dutenak. Aitzitik, gizarteko talde asko bazter uzten dira, hain zuzen, «ahotsik gabekoak» deitutakoak, hala nola, langabetuak, etorkinak, gazteak, adinekoak, ezinduek, eta abar. Antzekoa da Francisco Garrido-k esaten duena (2002):

Hortaz [...] parte hartzeko diskurtsoa makillaje hutsa da, jarduera publikoaren alderdikeria legezketzat jo nahi baitu, herritarrek proiektuei atxikimendua erakuts diezaieten lortuz. Praktikan, gizarteko talde askok pairatzen dute plangintza, eta bazter uzten dira erabakiak hartzeko eta kudeatzeko esparrutik. Gazteek, adinekoek, etorkinek, langabeek, emakumeek, elkarte alternatiboek ez dute tokirik aurkitzen hitzartzea ukatzean [...] Oro har, parte hartzea irudikeria bilakatzen da, errentagarritasun pribatuak sortzen dituzten ahalgaitzak batzeko modu bat da, kontrol soziala lortzeko eta legezketzat jotzeko tresna sotila.

Parte-hartzea baliozkoa eta eraginkorra izango dela bermatzeko kalitateko irizpideak



Begien bistakoa denez, parte-hartzea ez galbideratzeko, kalitateko irizpideak zehaztu behar ditugu, haren balioa eta eraginkortasuna bermatze aldera.⁹

■ Talde txikietan egindako lana

CRED-en ikerketaren emaitzak ikusita, bistan da talde txikietan egindako lana dela egokiena. Alde batetik, ezinezkoa da herritar guztiak parte hartzen mota honetako hausnartze-prozesu parte-hartzaileetan (hori dela-eta, sarritan erreferenduma babesten da, metodologiarik egokiena dela uste baita). Aitzitik, talde txikia da *gu*, talde bateko kidea izateko zentzu hori, garatzen den gune bakarra. Joan Subirats-ek honelaxe dio (2005: 9):

[...] garrantzitsuena ez da parte-hartzaileen kopurua, baizik eta «erritua» behar bezala joatea. [...] Kontua ez da bakarrik eraldaketaz hitz egitea, baizik eta elkarrekin bizitzeko modu desberdinak sentitzea, bizitzea, norbanakoaren autonomia babestuta, autonomia eta zentzu kolektiboa ere eraiki ahal izateko. Eta, horrela, aldatze-prozesuetan erantzukizun eta inplikazio pertsonaleko dinamikak sortzea, gaur egun nagusi diren esku ordetzeko logiketarik harantz joz [...], banakako eta taldeko proiektuak berriz lotzeko moduak bilatuz, ahotsik gabekoak aintzat hartzen dituzten politikekin lan

eginez, egunerokotasunean herritar izaten ikasiz, bizitzeko baldintzak zehatz aldatzeko prozesuan parte hartuz.

Nabaria da mota horretako prozesuak talde txikietan baik ez direla izaten, horrelakoetan nolabaiteko konfiantza baitago eta inor ez baita kikilduta sentitzen. Herritar gehienak ez daude ohituta jendaurrean hitz egitera. Hogeita bost kideko talde batean egotea ere —horixe baita esku hartzeko gune parte-hartzailetan izaten den kopurua—, jende askoren ustez, gehiegizko presioa da, eroso moldatu ahal izateko. Hargatik, bost laguneko taldetan egiten dira eztabaidak eta hartzen dira erabakiak. Txandakatze-sistema batek ondo bermatzen du ez direla beti lagun berberak bilduko, gainera, hori arriskutsua izan baitaiteke buruzagi nagusi bat azaltzen joan dadin. Litekeena da norbanako horiek —talde guztietan egiten direnek— ustez adostuta dauden, baina benetan adostu gabe dauden, proposamenak edo konponbideak azaltzea.

■ Gogoeta

Jakina denez, parte hartzeko prozesuetan informazioa ezinbestekoa da, baina ez da aski. Denok dakigu errealitateaz eta iristen zaigun edozein informazioz dugun pertzepzioa selektiboa dela. Jasotzen dugun informazio-mordoaren aurrean, gehien interesatzen zaiguna eta gure iritzia, uste eta balioekin bat datorrena aukeratuko dugu. Egunkariren bat irakurri edo hitzaldiren bat entzun duen pertsona bati elkarrizketa egiten badiogu, zer sumatu duen jakiteko, harrituko ginatke, erantzun-sorta zabala ikusita, pertsona bakoitzak jaso duena irakurrita eta erantzunen artean dauden kontraesanak ikusita.

Parte hartzeko prozesuetan, informazio hutsa jasotzera mugatuko baginateke, gero, kontsulta egiteko formularen bat erabiliz (galdetegia, elkarrizketa, etab.) parte-hartzaileek azalduko gaien buruz duten iritzia jakiteko, ikusiko genuke haietako gehienek aurrez finkatutako estereotipoen eta jarre-ri eutsiko lieketela.

Elkarrekiko gogoeta zera da: talde txikietan eztabaidatzea, denok besteen iritzia entzunez —normalean harremanik izaten ez diren gizarte-taldeetako kideen iritzia ere bai—, eta nork bere ikuspegiak aldezteko argudioak ematea. Gogoetan sortzen den egoeran, estereotipo horiekin hausten da, eta lagungarria da parte-hartzaileek iritzia eta jarrera alda ditzaten. Hori argi eta garbi frogatu da tankera honetako prozesuen amaieran egiten diren inkestetan, inkesta horietan, parte-hartzaileen ehuneko handi batek —%80k— aditzera eman baitu eztabaidagai batzuei buruz zuen iritzia aldatu duela. Beste prozesu batzuekin erkatuta, hori benetan ezohikoa da, beste prozesu batzuetan parte-hartzaileek sarritan entzun ere ez baitote egiten beste alderdiari, eta eskura dituzten bitarteko guztiak erabiltzen baitituzte lehendik eraturako iritzia eta interesak babesteko. Francisco Heras Hernández-ek oso argi adierazten du (2005: 18):

Gogoeta egiteko prozesuek gizarteko komunikazioa sustatzen dute: gogoeta egiteko prozesuetan parte-hartzaileek limurtzaileak izan behar dute, eta haien argudioek —teknikoak izan arren— ulergarriak izan behar dute besteentzat.

Gogoeta egiteko prozesuak lagungarriak dira ikaskuntzari begira: ezagutza, ikuspegi eta interes desberdinak dituzten aktoreen arteko elkarreaginak aukera egokia dira besteengandik ikasi ahal izateko. Gogoeta lagungarria da errealitateari buruzko ikuspegi sinplistik gaintzeko: tartean dauden eragileak eta aztertu behar ditugun aukerak izan ditzaketen ondorioak are gehiago izango dira gogoeta askotarikoa bada, eta lagungarria izango zaigu gauzei buruzko horrelako ikuspegi sinplistik ez edukitzeko.

Gogoetaren bidez, hobeto ezagutu ahal ditugu gure interesak: gogoeta egiteko prozesuen bitartez, gure

iritziak argitu eta hobeto zehaztuko ditugu, hainbat aukera eta zalantza topatuko baitugu bidean, eta jarrera bat hartu beharko baitugu horien aurrean.

Gogoeta egiteko prozesuek ideia berriak sortzeko aukera ematen digute: egindako ekarpenek beste ekarpen batzuen oinarria dira, eta ideia berriak sortzen eta metatzen dira, bakoitzak zituen ideiak bezalakoak ez direnak. Era horretan, ezagutza berria eraikitzen da era kolektiboan. Gogoetak jendaurreko eztabaida aberasgarriak sorrarazten ditu: sarritan, ingurumenari dagokionez dauden ikuspegi edo interes desberdinen arteko desadostasunak aro publikora iristen dira, eta gizarteko eztabaida zabalagoak pizten dituzte.

Hausnarketak dituen alde onuragarrien zerrenda horretan, oraindik aipatu ez ditugun bi alderdi nabarmendu behar ditugu. Batetik, talde horiek duten gaitasun sortzailea eta berritzailea dugu; hori argi egiaztatu da egindako proiektu gehienetan, eta zur eta lur utzi ditu hala adituak nola ardurdun politikoak. Eta, beste aldetik, ausaz hautatutako pertsona bakan batzuen arteko eztabaidaren ondorioz hartutako erabakien estrapolazioa egiteko aukera dugu, eta gizarte-ingurune zabalago batean kokatzeko ere bai. Hori bideragarria da, eta zalantzan jartzen du tankera honetako prozeduren aurka erabili den argudioetako bat: parte-hartzaileen kopurua txikia izatea, eta, beraz, haren balioa adierazgarria ez izatea.

■ Giro ona edo jolas-giroa

Talde txikiei lotuta dagoen beste alderdi garrantzitsu bat da parte-hartzaileak ez direla aspertzen. Talde horietako batean dauden pertsonen ondo pasatzeko eskubidea dute. Horrelako gai garrantzitsu bat lantzeak ez du esan nahi prozesua esperientzia gogaikarria izango denik nahitaez.

Eta horrek lehen aipatutako alderdi askotan du eragina, hala informazioa prestatzeari buruzko alderdietan, nola hizlarien hizkeran eta datuak aurkezteko duten moduan, lanak egiten diren guneetan, eguerdiko bazkarian eta kafea hartzeko atsedenak antolatzeko eran.

Azken urteetan zorrotz gutxitu da alderdi politikoetako militantzia, eta gazteen parte-hartzea hutsala da ia; eta hori hala da, gehienbat, alderdi horien bileretan eta batzarretan egoten den giroa jasangaitza delako. Hori jasaten dutenek politikan arrakasta izateko asmoa dutenak dira.

■ Ordezkaritasuna

Lehen Greta Billing eta Francisco Garrido-ren aipuetan ikusi dugunez, parte hartzeko mekanismoak lagungarriak izaten dira gehiegizko ordezkapena duten gizarteko taldeak areago sar daitezzen erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartu ohi duten instituzio eta erakunde gehienetan, eta, era berean, alde batera uzten dituzte bazterrean egoten direnak, hau da, «ahotsik gabekoak». Gertaera horri aurre egiteko dugun era bakarra da parte-hartzaileak ausaz hautatzea. Alabaina, jende askorentzat harrigarria da hautatzeko modu hori erabiltzea. Izan ere, politikari gehienek ez dakite askorik erabaki behar dituzten gaien buruz; beraz, hori kontuan izanda, utziko al diegu are ezagutza gutxiago dutenei esku hartzen hain gai komplexuei buruzko erabakiak hartzeko prozeduretan? Galdera hori egitea legezkoa da. Izan ere, ohituta gaude honelako entzunaldiak ikustera: alderdiek, parlamentuek edo beste instantzia politiko batzuek, erabaki bat hartu aurretik, adituak, teknikariak, ekonomialariak, legelariak eta horrelakoak gonbidatzen dituzte, zenbait alderdiri buruzko informazioa eman diezaieten.

Kanpoko ezagutzetara eta irizpenetara jotzeko modu hori ezinbestekoa da, esate baterako, teknologia genetikoaren arloan, baina ia ezezaguna da ordezkari politiko gehienentzat. Bestalde, zalantzak pizten ditu. Zergatik ez eratu parla-

mentua, ezagutzen arabera hautatuak izan diren ordezkariekin, herritarrek hautatu dituzten pertsonekin eratu beharrean? Arazoak gero eta zailagoak dira, eta, beraz, politikariak gero eta harrituago daude. Sarritan, adituekin egiten diren entzunaldiko prozedura horiek ez dute irtenbiderik ematen, adituek uste osoz eta datu zientifikoetan eta estatistikoetan oinarrituta aurkezten dituzten txostenak, maiz, guztiz kontrajarrita daudelako. Hortaz, politikariak erabaki ezinik geratzen dira, kontrajarriak diren proposamenen artean zer erabaki ez dakitela. Beste aukera bat da konponbidea denboran barrean luzatzea, hau da, neurri politikoak proposatzea, ondo erkatutako datu fidagarriak ez dagoela argudiatuta, eta gehiago ikertu behar dela adieraztea. Hori denok ikusi dugu, esate baterako, azken urteotan aldaketa klimatikoaren inguruan izan den eztabaidarekin. Datuen eta azterlanen fidagarritasunari buruzko eztabaida amaiezina izan den bitartean, hogeitaz galduta, ez baitira hartu gaur egun saihestezin eta premiazkoztat jotzen diren neurriak. Kontua da, denbora horretan, itzulbiderik ez duen puntura iritsi ote garen jakitea, alegia, orain neurriak hartu arren, honezkero ez ote den berandu izango klimaren suntsipena saihestu ahal izateko.

Adituak ez dira beti independenteak eta neutralak izaten —ausardiaz esango nuke inoiz ez direla horrelakoak izaten—. Sarritan, interesa duten taldeen eta enpresen ordezkariak dira, hau da, *lobby-en* ordezkariak. Eta azken hamarkadak gogora ekartzen baditugu, zenbat astakeria ez ote dute esan adituen gremio horietan, esaterako, energia nuklearra izateko beharrianari buruz, bestela, «horrelakorik ezean, hemendik hamar urtera argiak itzaliko direla» argudiatuta?

Jakina, erabakiak hartzeko, adituen ezagutzak behar ditugu, baina ez dute haiek nahitaz izan behar erabakiak hartzen dituztenak. Eta herritar arruntak, eta politikariak ere bai, arazo askoren zailtasuna ulertzeko gai ez direla dioen argudioaren aurrean, aditzera eman behar zaie haiek ez direla gauza izan arazo horiek argi azaltzeko.

Ralf Dahrendorf-ek esaten duenari jarraiki, «aditukrazia» urrun dago ordezkari politikoengandik eta demokraziarengandik, baina herritarrengandik ere bai, horiek interesa erakutsi arren, gero eta gutxiago ulertzen baitute. *Aditukraturantz* al goaz, hau da, oso konplexuak diren gizarteak —ustez— ulertzeko gai diren gutxi horien nagusikeriarantz al goaz, herritar gehienek zuten interes urria galtzen duten bitartean? Egia da bide horren puska handi bat ibilia dugula honezkero, baina gero eta nabariagoa da irtenbiderik gabeko kale itsua dela.

Erabakiak hartzeko prozedura erabakia bera bezain garrantzitsua —edo are garrantzitsuagoa— dela, uste badugu, atzera berriz egingo dugu galdera: nola aukeratu behar ditugu erabaki horiek hartuko dituzten pertsonak? *Los principios del gobierno representativo* izeneko saiakeran, Bernard Manin-ek argi frogatzen du, urte askotan, egilerik itzaltsuenen ustez, zozketa izan zela demokraziaren funtsa —hau da, ausaz aukeratzea—. Aristotelesen ustez, demokraziaren oinarri nagusia ez zen herriak gobernatu behar zuela eta gobernatua izan behar zuela, baizik eta herritarrek gai izan behar zutela bi tokietan txandaka aritzeko: «*Arrazoi handiz esan izan da inork ezin duela ondo agindu, lehenago esandakoa bete ez badu*» (Manin, 1998: 43). Hau da, zozketaren bidez, ez ziren pertsonak aukeratzen erabakiak har zituzten bakarrik, boterea izan zezaten ere hautatzen zituzten. Horrek argi azaltzen digu kultura demokratiko grekoaren beste ezaugarri funtsezko bat: kargua txandakatzeko oinarria. Azkenean erabaki zuten txandakatzeko eta zozketa nahastea zela antidotorik onena, hainbeste mesfidantza pizten zuen profesionalismoari aurre egiteko. Profesionalak gobernuan parte hartuz gero, azkenean gobernuaz jabetuko zirela uste zuten. Konbinazio hori errepublika italiarren historian ere aurkituko dugu, esate baterako, Florentzian eta Venezian.

XVII. eta XVIII. mendeko politikako teorialari handiak ere zozketaren alde zeuden, adibidez, Harrington: «*Hauteskun-*

deak, zozketak ez bezala, aurrez existitzen diren eliteak baizik ez ditu hautatzen» (ibidem: 89); Montesquieu: «*Zozketa bidez hautatzea demokraziari dagokio. Zozketa inor mintzen ez duen hautatze-modu bat da; aukerak onak ematen dizkie herritarrei beren sorterrria zerbitza dezaten*» (ibidem: 93); eta Rousseau: «*Demokraziak berezkoa du zozketa bidezko hautaketa*» (ibidem: 97).

Alabaina, Manin-ek dioen bezala, 1762. urtean behintzat, zuzenbide politikoko oinarriak aurkeztu nahi zituen pentsalariak lekua utzi behar zuen bere teoria politikoan zozketa aipatzeko, eta belaunaldi bat igaro ondoren, berriz, eginkizun publikoak zozketa bidez esleitzeko ideia desagertuta da ia aztarnarik utzi gabe. Amerikako eta Frantziako iraultzetan ez zuten aintzat hartu. Sistema ordezkatzailerak sortu zirenean ere, agintariak hautatzeko modu hori ez zuten jaso aukera-sortan.

Ibilbide historiko honi amaiera emateko, aditzera eman behar dugu gaur egun gure burua arautzeko dugun eredia, eredu demokratikoa deitzen dugun hori, ez zutela hasieran halakotzat jo. XVIII. mendeko irizpideen arabera, lerro ordezkatzailerak jarraiki antolatutako gobernuak ez zuten demokraziatzat jotzen, erabat desberdina zen zerbait baizik; gaur egun, berriz, demokraziaren forma bat dela onartzen da —eta, beharbada, forma bakarra—.

Atenasko garaietatik, bi hitz iritsi zaizkigu, baina ez ditugu jatorriz zuten zentzu berberekin erabiltzen. Hitz horietako bat *kleroa* da: zozketan aintzat har dezaten nahi duten herritarrek dira horiek (*klerau* «*zozketatu*») aditza da bere sorburua). Baina bazegoen hitz bat gai publikoekiko interesik erakusten ez zuten herritarrei deitzeko: *idiotes* esaten zieten, itzuli beharrik ez duen hitza.

Laburbilduz, gainerako antolakuntzek ez bezala (alderdiek, intereseko taldeek, gizarte-eragileek ez bezala), herritarrek guztion onura epe luzean babesteko joera izaten dute, eta, horrenbestez, haiek dira garapen iraunkorra bermatzeko dauden benetako eragileak. Tomás Rodríguez Villasantek (1996) honela dio ildo horretan:

[...] *botereak berriz orekatzeko aukera emango duten erabakitze-gune partekatuak sortu behar dira, batetik, iraunkortasuna bermatzeko eta, bestetik, historikoki gizarte- eta politika-arloan baztertuta egon diren taldeen ikuspegia eta interesak aintzat hartzeko, hori berez ez baita oztopo gairidiezina iraunkortasunari begira. Gaur egungo pobre, ezindu, emakume eta gutxiengo etnikoen belaunaldiei «jabekuntza» lortzeko aukera ematen ez badiegu, hau da, prozesu horien guztien helburu esplizitua gizarteratzea ez bada, nekez konponduko ditugu gairiditu nahi diren arazoak.*

Eta, lehen ikusi dugunez, CRED-eko ikerlariek aipamen berezia egiten diote jokatzeko modu horri.

■ Informazioaren 'inputa'

Ausaz hautatutako herritarrekin lan egin nahi bada, hau da, honelako prozesuetan lantzen diren gaiei buruz ezer gutxi dakiten pertsonekin lan egin nahi bada, bistan dago informazio egokia eduki beharko dutela irtenbide eta proposamen egokiak egiteko. Haien akatsa ez da bakarrik dena delako gaiari buruzko ezagutzarik ez izatea; horrez gain, ez dute taldeka lan egiteko eta eztabaidatzeko esperientziarik.

Herritar horiek beren kasa uzten baditugu konponbideak aurkitzeko orduan, frustrazio handia ekarriko diegu haietako gehienei. Eta arazoan konponbidea aurkitu beharrean, ziurren, proposamen heldugabeak eta irrazionalak topatuko genituzke, oztopoak besterik ez.

Tankera honetako proiektu batean parte hartzen dutenek, hasieran, ez dituzte gai zehatz bati buruzko erabakiak hartzeko eduki behar diren ezagutzak, edo haien maila ez da aski. Informazio horiek aurrez prestatu behar dira, eta, era berean, eskuragarri egon behar dute denontzat. Gainera,

parte-hartzaileek ulertzeko moduan eskaini behar dira, eta, horretarako, arazoen konplexutasuna murriztu behar da, alderdi nagusiak azalduz. Arazoen ikusmen-itzulpena oso lagungarria da informazioa jasotzeko eta ulertzeko.

Talde horiek aukeratzeko erabiltzen den modua dela-eta, taldeak oso heterogeneoak dira adin, gizarte-maila, prestakuntza... aldetik, eta, beraz, hainbat oinarri behar dira. Informazio garrantzitsuak aurkeztean, dauden maila desberdinak hartu beharko dira aintzat. Hala, oinarrizko informazioa prestatzeko lana ezin da utzi gai horretan adituak diren lagunen eskuetan; horrez gain, psikologian, didaktikan eta pedagogian adituak diren pertsonen lankidetzak behar da. Nolanahi ere, ezin da gutxienezko prestakuntza edo harrera-proba moduko zerbait eskatu herritarrek parte har dezaten (era berean, ez da hori bete behar hauteskundeetan esku hartzeko); horren ordez, ahalegin handia egin behar da gaiaren konplexutasuna azaltzeko, herritar arruntak ulertzeko moduan.

Horretarako, taldeak gidari antolatzailea behar du, bilerak prestatzen eta erabiliko diren materialak eta agiriak egiten aritu den, eta, orobat, hizlarien eta parte-hartzaileen artean interprete- edo bideratzaile-lanak egingo dituen gida.

Bestetik, *ez-aditua* hitza ez da oso zuzena, parte-hartzaile guztiak adituak baitira gai jakin batean —edo batzuetan—. Horri esker, talde horiek era askotako esperientzia interesgarriak, ezagutza bereziak eta sorburu desberdinetako osagai biografikoak biltzen dituzte. Egoera horrek taldeka egindako bidaia turistiko baten antza du, eta pizgarri bat da guztiontzat, parte-hartzaile guztiak aberasten direlako.

Alabaina, baldintza jakin batzuetan zama bat izan daitezke, norbanako bakoitzak bere berezitasunak eta arazoak gaineratzen baitizkio taldeari. Antolatzaile profesionalak ahalik eta etekinik handiena atera behar diote egoera horri, ahalmen izugarri hori etekintsua den zerbait bihurtu behar dute, eta ahaleginak egin behar dituzte interferentziak saihesteko.

■ Ordainketa

Irizpide hau ezin da erkatu goian aipatu ditugunekin. Aurreko irizpideak ezinbestekoak dira, baina ordainketa, gaur arte, egindako esperientzia bakan batzuetan baizik ez da egin. Izan ere, arduradun politikoei zail egiten zaie ulertzeko herritarrei ordaindu behar dietela erabakiak hartzeko bileretan eta eztabaidetan parte har dezaten. Ohituta daude bilera, batzar, osoko bilkura ireki eta antzekoetara joaten, baina inoiz ez zaie burutik pasa ere egin herritarrei ordaintzea ekitaldi horietara joan daitezen. Alabaina, bestetik, harrigarria egiten zaie gai publikoetan sartzeko eskaintzak ia erantzunik ez jasotzea, edota haietara joaten direnek —guztion onura babestu beharrean— presioko talde gisa aritzea interes partikularren alde.

Hala, bada, beste pizgarri bat behar dugu gure herritarrek parte har dezaten; eta gai publikoetan denbora eman dezaten lortu nahi badugu, pizgarriak egokiena dirua da. Egindako esperientzien bidez frogatu denez, eragile hori ez da funtsezkoa izan herritarren erabakiari begira, edo oso kasu bakan batzuetan baizik ez da erabakigarria izan, esate baterako, ikasle batzuentzat, haientzat jasotako diru-kopurua pizgarri garrantzitsua baitzen. Alabaina, gainerakoentzat kontua zen haien eguneroko eginbeharretatik askatzeko aukera izatea, dirurik galdu gabe. Era horretan, gizarteko sektore guztiek ordezkaritza zabala izango dute, eta bilera horietan ez dira bakarrik egongo erretirodunak, ikasleak eta presio-taldeko ordezkariek edo dena delako gaien eragina zuzenean jasan duten pertsonak.

Bestalde, ordainketek alde sinbolikoa ere badute. Gure gizarteetan, preziorik ez duenak ez du baliorik. Herritarrei ordaintzeak esan nahi du hori haientzat ganorazkoa eta baliagarria dela.

Uste dugu edozein proiektuk irizpen teknikoak eta juridikoak izan behar duela, eta txintik esan gabe onartzen dugu

horren kostua, horretara ohituta gaude-eta. Alabaina, harrigarria iruditzen zaigu «herritarren irizpen» batek kostua izatea. Hala ere, proiektu bat blokeatuta badago alderdi politikoak bat etortzen ez direlako edo herritar batzuek —partikularrek edo talde antolatuek— epaitegietara eraman dutelako, horrek kostu ekonomikoa sorraraziko du. Alemanian aireportuak eraikitzeak kasuari dagokionez, adibidez, plangintza-aldiaren amaiera hamabi eta hogeitun urte bitartean atzeratu da, arrazoi horiek direla-eta. Denok ezagutzen ditugu erabakien adibideak, gastu ikaragarriak sorrarazi dituzten erantzunak eragin dituztenak; kasurik onenean, segurtasun-neurri gehigarriak hartu dira (hesiak, zaintzaileak, etab.), eta kasurik txarrean, indarkeriazko ekintzen ondorioa izan dira (Frankfurteko aireportua, Leitzarango autobia, Besòs-eko «intifada», zerrenda luze bateko izen bakan batzuk aipatzeagatik).

Baina badago askoz kezkarriagoa den beste *kostu* bat, jendaurrean ezer gutxi aipatzen dena. Izan ere, gai batzuen aurrean, erantzun eta esku-hartze berehalakoak eta, batzuetan, larriak behar dira, baina gure politikariek alde batera utzita dituzte, *hauteskundeetan zigorra* jasoko dutelakoan; adibidez, osasun-sistemaren edo erretiroen erreforma, edota ingurumenaren hondamena saihesteko neurri eraginkorragoak. Gai horiek, eta beste batzuk, tabu gisa hartzen dira. Espainiako gizartearen dualismoa erabatekoa da lan-merkatuari eta etxebizitzari dagokionez. Hori adibide argia da, garbi erakusten digu zer gertatzen den politikariek hartu beharrekoak diren eta gehiengoaren kontra dauden erabakiak alde batera uzten dituztenean, ondo antolatuta dauden gizarteko talde jakin batzuek eskuratutako eskubideetan eragina izango dutelako. Ondorioak denok jasango ditugu, eta ez da halabehar hutsa hedabideek gero eta gehiagotan aipa ditzaten «belaunaldien artean egon daitezkeen gatazkak».

Gero eta sarriagotan blokeatzen eta atzeratzen diren proiektu horien kostuarekin alderatuta, tankera horretako proiektu bat egiteko kostua aski hutsala da. Gaur egun aurrekontuetako arazo teknikoak da gehienbat, ereduarekin interesatuta dauden erakundeek ez baitakite non jarri haien aurrekontuetan. Kontua da aurrekontuko sail bat zehaztea, herritarren parte-hartzerako, adibidez, gaur egun lehen aipatu ditugun irizpen teknikoak edo juridikoak prestatzeko egiten den bezala. Eta gai horretan ere ez dugu ezer berririk asmatuko. Bernard Manin-ek honela idatzi zuen (1998: 30):

Aristotelesen ustez, jarduera politikoen truke ordaintzea eta batzarrean, auzitegietan eta magistraturetan parte hartzea demokraziaren ezinbesteko oinarria da. [...] Ordainketa horiei esker, bestela ere jarduera politikotik bazterrean geratuko lirakeen pertsonak parte hartu ahal izango zuten —laneko orduak galdu behar zituztelako—, edota, oro har, baliabide apalak zituzten herritarrak erakarri ahal izango zituzten.

Irizpide gehiago zerrendatu ahal dugu, hala nola, intereseko taldeen interesen aurkako immunitatea, tankera horretako esperientzien antolatzaileen interesen aurkako immunitatea, baina, dena dela, osagai horiek aski dira parte hartzeko mekanismoak lehenengo galbahetik igarotzeko.

5 Parte hartzeko mekanismoen azterketa laburra

Irizpide horiek kontuan izanda (azkena izan ezik), labor berrikusiko ditugu dauden mekanismoak, eta mekanismo horiek ezartzea egokia den aztertuko dugu.

■ Erreferenduma eta lege-ekimenak

Badirudi ez dela beharrezkoa erreferendum bat zer den azaltzea; alabaina, legezko herri-ekimenak ez dira arruntak herrialde guztietan. Tresna horren bidez herritarrek erreferendum bat jar dezakete abian (Suitzan), edo parlamentuko legegintzako prozedura bat, herritarren sinaduren kopuru jakin bat bildu ondoren (adibidez, Espainian). Azken urteetan izan diren esperientziak ez dira oso gogo-pizgarriak (adibidez, Maastricht-eko itunari buruz Irlandan, Danimarkan eta Frantzia egin diren erreferendumak); hala ere, alderdi politiko eta gizarte-mugimendu batzuek mekanismo hori sendotu nahi dute, herritarrek zuzenago parte har dezaten lortzeko.

Metodologia horiek duten alderik ahulena da egiten diren galdera gehienak konplexuegiak direla «bai» edo «ez» soil batekin erantzuteko, eta, beraz, informazio gehiago behar dela herritarrek eskura dutena baino. Beste arazo bat da lege-ekimenak, sarritan, presioako talde indartsuek eta *lobbi* abiarazten dituztela (ikus Estatu Batuetako adibidea), eta talde horiek normalean ez dute interes publikoa babesten. Eta, azkenik, arestian antolatu diren erreferendum gehienetan, parte-hartzea oso urria izan da (ikus Espainian 2005. urtean Europar Batasuneko Konstituzioari buruz izan zena).

Mekanismo horren adibide gisa honako ekimen hauek aipa ditzakegu: 2000. urtean kirol-instalazioei buruz Tolosan izan zen ekimena, Donostiako Katalunia plaza eraberritzeko lanak (2006. urtean), eta orain dela oso denbora gutxi Usurbilen zaborra atez ate biltzeari buruz egindakoa (2010). Lehenengo bi esperientziak ez dira adibide onak herritarren parte-hartzeari begira, oso parte-hartze urria izan zelako (%16 eta %6,7 hurrenez hurren). Aitzitik, Usurbilgo adibidean, parte-hartzeko kuotak udal-hauteskundeetan izandakoa gainditu du (%70tik gora); bilketa-mota horren aldeko emaitza (%56koa) harrigarria da, ez baita ezagutzen azken urteetan kuota horretara iritsi den erreferendumik, ez estatuan, ez nazioartean, ez bertan, ez eskualdean, ezta European ere. Datu harrigarri horiek azaltze aldera, beharbada esan dezakegu bilketaren hautabideak zuzeneko eragina izango lukeela Usurbilgo herritarrengan, errausteko instalazioa eraikitzea baita hautabidea, eta Usurbil ondo-ondoan jarri nahi baitute.

■ Inkestak, iritzi-zundaketak eta antzeko beste mekanismo batzuk

Tankera horretako herritarren esku-hartze zuzena garrantzitsuago bilakatu da azken urteetan. Ez da erabaki politiko garrantzitsurik hartzen, mota horretako ikerketen bidez herritarrek haztatu gabe. Metodologia horien arazo nagusia hau da berriz: galdetutako herritarrek ez dutela informazioirik. Erantzuna ematen dute egunkarietan irakurri dutenaren arabera, edo haien ustez gehiengoak sinesten duenaren arabera, edota galdera egin duen pertsonak entzun nahi duenaren arabera. Ez da gogoeta egiteko prozesu bat, ez baitute informazio gehiago jasotzen, eta ez baitute aukerarik haien ikuspegia beste lagun batzuekin trukatzeko. Gainera, galdera arruntak egin behar dira, era horretan litekeena baita erantzunak ere sinplistik izatea (Bourdieu, 1984).

Akats eztabaiaezin horiei aurre egiteko, azken boladetan, *gogoeta egiteko inkestak* garatu dira. Horien bidez, eztabaia publikoa piztu nahi da, inkestan hautatutako parte-hartzaileen artean. Metodologia horrek esparrua eskaintzen du formula kuantitatiboa eta hausnarketa uztartzeko. Bestetik, iritzi-inkesta egiten zaie herritarren lagin adierazgarri bati. Gero, parte-hartzaileei dei egiten zaie, foro batera joan daitez; bertan, adituen eta tarteen dauden gizarte-taldeetako ordezkarien laguntzaz, informazio zehatza jasotzen dute aztergaiari buruz, eta aukera dute hausnarketa eta gogoeta egiteko, gaiaren aldeko eta aurkako argudioei buruz. Hausnartzeko prozesuaren bukeran, beste inkesta bat egiten zaie parte-hartzaileei, hasierako galdetegia erabilita, hartara,

gogoeta egiteko prozesuak arazoa hautemateko duten moldean izan duen eragina neurtzeko. Helburua da hausnarketak parte-hartzaileen iritzietan eta lehenasunetan duen eragina jakitea da, eta, orobat, tresna hori eztabaia publikoaren molde berri gisa ebaluatzea.

Mekanismo hori 2006. urtean ezarri da Espainian, hain zuzen, Kordoban, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Joan Font-en inguruan sortutako talde batek egin du.

Ez dugu zundaketen adibiderik jarri behar, hiritar eta kontsumitzaile garen aldetik ia egunero jasaten baitugu haien erasoak.

■ E-demokrazia eta ziberdemokrazia

Metodologia horiek azken urteetan sortu dira, teknologia berriak gero eta etxe gehiagotara zabaldu direlako (ordena-gailu pertsonalak, Internet). Jende askoren iritziz, gertakari horren inguruan dauden *software* eta *hardware*-ko argitalpen, ikerketa eta aurrerapen tekniko ugariak dira, hain zuzen, herritarrek zuzenean esku har dezaten dagoen irtenbiderik onena. Nabaria da teknologia horiek gero eta garrantzi gehiago izango dutela etorkizunean. Foro elektronikoen, hitzaldiek, txatek eta horrelakoek aukera ematen dute gogoeta egiteko eta informazio asko eskura izateko, baina, dena dela, arazorik handienak hortxe dirau, eta hau da: prozesu horietan parte hartzeko dagoen borondatea, interesa eta motibazioa (Wolton, 2003). Alabaina, baliabide horiek gero eta gehiago zabaltzen ari badira ere, ziurrena, beti egongo da baliabide horiek eskuratzeko modurik izango ez duen herritarren zati handi bat, eta, jakina, parte hartzeko beste mekanismo batzuetan ere bazter utzita dauden pertsona-taldeak izango dira herritar horiek. Bestalde, interes bereziko taldeek (*lobbi*) gehiegikeriaz erabil ditzakete horrelako metodologiak.

Beasaingo web gunean dugu gertuko adibidea (<http://www.beasain.org>), udalerriko arau subsidiarioen proiektuari buruzko zuzeneko informazioa jasotzeko aukera ematen baitu. Horrez gain, *e-eskaera* bat egiteko aukera ematen du, era horretan, inprimakia betez kexak, oharrak eta iradokizunak bidaltzeko.

■ Mahai-inguruak, tokiko elkarrizketa, erkidegoko plangintza, aukeren tailerra, etorkizuneko hitzaldia, benetako plangintza, etorkizuna bilatzea eta entzunaldiak

Arraro samar egiten zaigu hitz horiek euskaraz entzutea, eta hala da gure hizkuntzan oso ohikoak ez diren alemanezko eta ingelesezko hitz teknikoen itzulpena direlako. Jakina denez, sinplifikazio bat da atal honetan nahastea, hitz bakoitzak bere bereizgarriak, bere ezaugarriak eta ezartzeko arlo bereziak dituelako. Hala ere, aurrean dugun asmoari begira, bidezkoa da hitz guztiak batera aurkeztea, denek ezaugarri hau baitute batera: mekanismo horietan parte hartzen dutenak ez dira herritar arruntak, baizik eta interes- edo presio-taldeetako adituak edo ordezkariak. Alabaina, badute hor egoteko arrazoirik, maiz ezartzen dira, eta sarritan arrakasta izaten dute. Eta adituak eta ordezkariak, nabaria denez, herritarrek izan arren, berez, ez dira herritarrek lehen, herritarren parte-hartzearen aldeko argudioak eman ditugunean, aipatu dugun zentzuan.

Adibidez, horra hor lehen aipatu dugun Irungo lan-mahaia, udalerriko eragile ekonomikoak eta sozialak elkartu nahi dituen tokiko agenda 21 prestatzeko. Beste adibide bat, Irungoa bera ere, Herritarren Biltzarra da, biltzar horrek aukera eman baitzuen hiri osoan eragina duten gaiei buruzko hausnarketa eta iritzi desberdinak jasotzeko. Proposamen horiek jasota uzteko, liburu zuria prestatu zuten: Libro Blanco (2001).

■ ‘Open space’ eta ‘open house’ metodologiak

Open space (gune irekia) izeneko hitzaldiek ez dute aurrez ezarritako agenda zehatzik; horren ordez, bertaratzen diren pertsonak dira gaiak proposatzen dituztenak eta horiei buruzko botoa ematen dutenak, azkenean zein gairi buruz hitz egingo duten erabakitze aldera. Hitzaldi horietan nahi duenak hartzen du parte, baldintza berberetan egin ere. Hala, bada, ez dago hizlari-rik agertokian, gainerakoek berak esandakoa entzun dezaten eta azkenean galderak egin diezazkioten. Aitzitik, bertaratutako guztiek beren iritzia ematen dute, eta elkarri eragiten diote.

Metodologia horien aurka dagoen argudio nagusia ordezkari-tasun eza da berriz ere. Bi mekanismo horietan parte-hartzaileek hedabideen bitartez jaso dute gonbidapena. Haien goiburua —etortzen direnak dira egokienak, kopuru ezin hobean izan ere— ez da oso sinesgarria, batez ere interes-taldeetako boteretsuen eta handikien interesak ukitzen dituzten gaiak aztertzean.¹⁰

Ezin dugu gure ingurueneko adibiderik hona ekarri, ez Euskal Herriko, ez eta Espainiako adibiderik ere, gehienbat Estatu Batuetan garatu eta saiatu diren mekanismoak direlako. Alabaina, Espainian sartzeko saiakerak egin dira, eta, ildo horretan, 2009ko urriaren 23an eta 24an, Agile Open Spain biltzerra izan zen Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan, Informatikako Unibertsitate Eskolan.

Lehen koadroan, argi azaltzen da aztertu diren mekanismoek zein neurritan betetzen dituzten eskatutako ezaugarriak. Ikusten denez, mekanismoek ez dituzte oinarriko kalitate-irizpideak ere betetzen, hau da, ez dituzte betetzen gutxienez gogo-betekoak diren emaitzak bermatzeko eskatu behar diren irizpide horiek. Hurrengo mekanismoak, berriz, gehiago hurbiltzen dira eskatzen diren irizpideetara.

■ Adostasunerako biltzerra, esku hartzeko gune parte-hartzaileak, herritarren panelak, ‘charrette-a’, ‘world kafea’ eta herritarren kontseiluak¹¹

Metodologia horien guztien funtsa biltzarrak antolatzea da, era horretan, errazagoa izan baitaiteke herritarrek parte har

dezaten eta erabakiak hartzeko prozesuetan dituzten esperientziak adieraz ditzaten lortzea. Horrela, herritar arruntek —adituak ez diren horiek— aukera dute arazo jakin bati buruz gogoeta egiteko (hirigintzako plangintza edo plangintza estrategikoari buruz, osasun-sistemaren erreformari buruz, edota zenbait azpiegituren eraikuntza edo kokapenari buruz) eta arazo horrek izan ditzakeen aukerei eta ondorioei buruz hausnartzeko.

Bilera horiek adituen, interes- edo presio-taldeetako ordezkarien, kaltetutako eta herritar arrunten arteko elkar-riketa gisa antolatuko dira, eta ondoz ondoko hainbat egunetan luzatuko dira (hiru eta bost egun arteko iraupena izango dute). Era horretan, metodologiaren bidez, ondo informatuta dauden herritarrek erabaki politikoak hartzeko prozesuan sar daitezten lortuko da. Talde horiek ausaz hautatutako 12 eta 25 arteko herritarrek osatuko dituzte. Herritar horiek ikuspegi desberdinetatik egiaztatutako informazioa jasoko dute, hizlari-rik aurkeztuko diete, lekukoek epaiketa batean bezala. Parte-hartzaileek gogoeta egingo dute azpi-taldeetan banatuta, dena delako aztergaiaren hainbat alderdi ikertzeko. Azkenean, erabaki bat hartuko dute, edota gomendioak prestatu edo aurkeztuko dituzte *herritarren irizpen* gisa. Erakunde antolatzaileak (adibidez, udalerriak edo ministerioak) hitz emango du gomendioak kontuan hartzeko eta dagokion moduan jokatzeko, edo, ezinezkoa izanez gero, horren arrazoia argitzeko.

Metodologia horien emaitzarik garrantzitsuenetako bat hauxe da: zubiak eraikitzen direla herritarren, adituen eta politikarien artean.

Bigarren koadroan ikusten denez, mekanismo horiek eskatutako irizpideak betetzen dituzte, aurrekoek baino gehiago; *amerikarrek* baizik ez dute huts egiten, eta puntu bakar batean baino ez dute egiten (informazioaren *inputa*).

Jakina denez, mekanismoen zerrenda osatu gabe dago, baina, hala ere, ezagunenak agertzen dira. Besteak erraz sar litezke, haien ezaugarriak aztertuta, eta hemen garatu ditugun irizpideak aintzat hartuta. Eta beste batzuek halakotzat azaltzen dira, baina, berez, ez dira horrelakoak; adibidez, «aurrekontu parte-hartzaileak» izenekoak. Ez dute metodologia jakin bat islatzen, gai bat baizik, plan estrategiko batek edo tokiko agenda 21ek egiten duten moduan. Egia da beren jatorrian —hau da, Porto Alegren— ezaugarri jakin batzuk dituztela —egia esan, ordezkari-tasako mekanismo paraleloa

1. koadroa Parte-hartzeko mekanismoen kalitateko irizpideak betetzea (I)*

Eskakizunak	Mekanismoak				
	Erreferenduma eta legezko ekimenak	Inkestak eta iritzizundaketak	E-demokrazia eta ziberdemokrazia	Mahai-ingurua tokiko elkarrizketa, erkidegoko plangintza, etab.**	‘Open space’, ‘open house’
Talde txikiak	-	-	-	+	+/-
Gogoeta	-	-	+/-	+/-	+/-
Giro ona, motibazioa	-	-	-	+	+
Ordezkaritasuna	+/-	+	-	-	-
Informazioaren ‘inputa’	-	-	-	-	-

* Saillapen honek, (+) eta (-) ikurren bidez, dauden joerak baizik ez ditu irudikatzen.

** Aukeren tailerra, etorkizuneko biltzarrak, benetako plangintza, etorkizuna bilatzea eta entzunaldiak ere barne hartuta. Metodologia hauei buruzko informazio gehiago izateko, ikusi hau: <<http://www.wegweiser-buergergesellschaft.de>>.

2. koadroa Parte-hartzeko mekanismoen kalitateko irizpideak betetzea (II)*

Eskakizunak	Mekanismoak		
	'Charrette-a' eta 'world kafea'	'Citizens' juries' eta adostasunerako biltzarra	'Planning cell', 'Planungszelle' eta EGP
Talde txikiak	+	+	+
Gogoeta	+	+	+
Giro ona, motibazioa	+	+	+
Ordezkaritasuna	+/-	+/-	+
Informazioaren 'inputa'	-	+	+

* Sailkapen honek, (+) eta (-) ikurren bidez, dauden joerak baizik ez ditu irudikatzen.

Iturria Geuk egina.

da—, baina ezaugarri horiek nekez eraman daitezke Europako egoerara. Erabili den tokietan, era askotako mekanismoak baliatu dituzte: Alemanian, esku hartzeko gune parte-hartzaileak; Frantzian eta Espainian, «indar bizietako»¹² ordezkariekin egindako eztabaidak, hau da, herritarren erakundeekin eta elkarteekin egindako eztabaidak.

Oso zaila edo ia ezinezkoa da metodologia horiek haien artean argi bereitzea. Arrazoia da hasierako mekanismo batzuk direla haien sorburua, batez ere, Peter Diemel-en *Planungszelle* eta Ned Crosby-k garatu zuen *citizens' juries* bertsio amerikarra (Jefferson Center-ek Minneapolis-en), biak orain dela hogeita hamar urte baino gehiago eginak, eta, askoz geroxeago, Danimarkako Teknologia Kontseiluak sartu zituen adostasuneko biltzarrek. Gainerakoak, hasieran, behintzat, beste herrialde batzuei egindako transferentziak, aldakuntzak eta hibridoak dira. Adibidez, esku hartzeko gune parte-hartzaileen bertsio espainiarra Peter Diemel-en antzinako ikasle batek sartu zuen (artikulu hau idatzi duen Hans Harms-ek). Frantzian bi hitz erabiltzen dituzte, pertsona desberdinek egindako itzulpenen ondorioz: alde batetik, hitzez hitzeko itzulpena dugu, *noyaux d'intervention participative*; eta, beste aldetik, *conférence de citoyens*. Belgikan egindako lehenengo esperientzia (André-Dumont, 2001) hibrido bat izan zen, metroko segurtasunari buruz Parisen egin zen ekimenaren¹³ eta *Planungszelle*-ren Espainiako bertsioaren arteko hibridoa. Bestalde, *citizens' juries* izeneko bertsio ingelesaren oinarrian Peter Diemel-en *Planungszelle* delakoa dago argi eta garbi (Institute for Public Policy Research).¹⁴

Batzuetan, hitz berberak erabiltzen dira, baina guztiz desberdinak diren metodologiei buruzkoak dira. Adibidez, adostasuneko biltzarrek hitza batzuetan erabiltzen da interes-taldeetako ordezkariak dituzten bilereie esateko, batez ere, osasun- edo hezkuntza-sistemaren arloan, eta bilera horiek ez dute batere zerikusirik herritarren parte-hartzearekin (bereziki Frantzian).

Metodologiak erkatzeko ikusten dugun beste arazo bat hau da: haietako bat ere ez dela sorta finko eta estandarizatu bat; aldaketak daude proiektuen artean, aztertutako gaien artean, metodologiak ezartzen diren herrialdeen artean, edo metodologiak garatzen dituzten taldeen artean.

Euskal Herrian abian jarri diren hainbat esperientzietan, metodologia horien adibideak aurkituko ditugu. Esku hartzeko gune parte-hartzaileak 1992. urtean ezarri zituzten lehenengo aldiz Idiazabalen, futbol-zelaiaren kokapena erabakitzeke. Horren ondoren, hainbat proiektutan erabili zuten, eta horietatik garrantzitsuena Maltzaga-Urbina autobidea izan zen. *World kafe* metodologia Tolosan ezarri zuten 2009. urtean, eta horren emaitzak udal horren web gunean daude ikusgai.

6 Ondorioak

Sistema ordezkatzalea, eredu teoriko gisa, Ingalaterran jaio zen XVII. mendearen bukaeran; eta gaur egun ere indarrean dago, baina modalitate desberdinak hartu ditu denboraren poderioz. Hala ere, eredu horrek izan ditzakeen formulazio guztiek osagai bat dute batera: hasieran, eta haren garapena ikusita, sistema ordezkatzaleak ez ditu demokrazian sakontzeko behar diren tresnak; ez, behintzat, demokrazia hitzak jatorriz duen esanahia aintzat hartuta, hau da, herriaren gobernua. Hipotesi hori bultzatzeko, zera argudia dezakegu: haren egitura batzuek ez dutela bultzatzen herritarrek epe luzean parte hartzea; aitzitik, gutxi gorabehera egonkorak diren beste bide batzuetara zuzentzen dute parte-hartzea (alderdi politiko, gizarte-mugimendu, sindikatu eta horrelakoetara), eta horiek denboran barrena izandako bilakaera eta bilakaera organikoa ikusita, nabaria da amaieran, batetik, ondo informatutako elite eraginkorra eratzten dela eta, bestetik, gainerakoak daudela —gehiengoa—, beren ordezkartza besteen esku uzten duen eragile pasibo bilakatura.

Hala ere, argitu behar da eredu hori lagungarria izan dela mendebaldeko gizarte modernoetan sortu diren arazoak antolatzeke eta, neurri handi batean, konpontzeko: masak sistema politikora sartzeko prozesua, boto unibertsala erabiliz; langileen antolakuntza politikoa lortzea, sindikatuen eta alderdien bidez, etab.

Kontua da ereduaren gizarte jakin batzuetan ezartzeko asmatu zutela, eta gizarte horiek asko aldatu direla harrez geroztik. Gaur egun, harrituta ikusten dugu metamorfosi azkar bat dagoela arlo guztietan, eta goialdean iraultza teknologikoa dago. Badirudi ezinbestekoa dela egitura politikoak egokitzea, gertakari horien ondorioz sortzen diren eskaera berriak eraginkortasunez bideratu ahal izateko.

Gaur egungoa bezalako gizarte-egoera konplexu batean, zaila da gairik garrantzitsuenak zein diren zehaztea, baina, hala ere, ardatz hauek nabarmendu ahal ditugu: gizarte-arloan, gutxiengoaren eskubideak, etorkinak arautzea eta gizarteratzea, emakumeen egoera hobetzea, bereizkeriaren eta tolerantzia ezaren aurka borrokatzea, eta abar; politikarloan, berriz, globalizazio eta erregionalizazioaren ondorioz sortutako instituzio-forma berriak, hauteskundeetan parte hartzeko motibazio eza, eskuin muturreko mugimenduen eta alderdien hazkuntza, eta deslegitimazio politikoren zantzuak. Alderdi horiek gero eta garrantzi gehiago

hartu dute azken hamarkadan barrena, eta, behar bezala konpontzen ez baditugu, mehatxu larria izan daitezke sistema demokratikoari begira. Hori dela-eta, ezinbestez egitura-tu behar dira berriz.

Hala ere, kontua da, gaur arte, eredu ordezkatzailak ez diela erantzun eraginkor eta azkarrik eman azaldu diren premiazko beharri zanei, eta arazoak metatuz joan direla, eta irtenbideak hurrengo belaunaldien esku uzten joan dela. Hutsuneak bi alderdi ditu: azpitik, sistemak hazkunde-muga jo du herritarrek parte hartzeari dagokionez; goitik, ez dago ahalmenik eztabaida eraikitzailea eta sortzailea bultzatzeko, eztabaiden erdian beren interesei, edo banakako nahiz taldeko interesei, lehentasuna ematen dieten talde politikoak egoten baitira, alegia, guztion onurari lehentasuna ematen ez dioten taldeak. Mende amaiera honetan hain premiazkoak diren gaiak ez dira behar bezala aztertu, esate baterako, ingurumenaren arazoa, langabezia, gizarte zahartze demografikoa —batez ere Europan—, migrazioak, edota munduan dagoen pobrezia eta bereizkeria. Hala, beraz, kontua ez da soilik ez garelako gai alderdi horiek behar den garaian eta moduan konpontzeko, baizik eta ez garelako gai arazo horiek aurreikusteko eta bideratzeko, eztanda egin aurretik.

Aurreko mendean, sistema politikoa egokitu behar izan zen langileen aldeak sar zitezen. Gaur egun, berriz, eskakizun politiko berriei erantzun behar zaie. Izan ere, biztanle askorentzat ez da aski hainbat urteren buruan botoa ematea; gehiago parte hartu nahi dute, hala kopuru nola kalitate aldetik.

Orain arte, sistema politikoak eman dituen erantzunek ez dituzte itxaropenik apalenak ere gaintzen. Irekiera bezalako zerbait suma daiteke, administrazio batzuek herritarren esku uzten duten informazio-maila handitu delako, besteak beste, herritarrei laguntza emateko telefonoei eta posta elektronikoen helbideei esker. Azken batean, egin denari edo egiten ari denari buruzko txosten bat eskaintzen zaio jendeari; eta onspen edo gaitzespen esangabea emateko aukera baizik ez diote uzten.

Alabaina, oso gutxi dira gune horiek baliatzen dituzten eta interesa duten herritarrak. Nolanahi ere, politikoki oso gizarteratuta dagoen eta oso eraginkorra den elite bat da. Herritarrek ez dute konpromiso gehiago hartzen, hemen aipatuko ez ditugun egiturazko arazoak direla-eta. Dena dela, nabarmendu ahal dugu sistema ordezkatzaila bera dela pertsona horiek izan dezaketen interesa moteltzen duena eta bultzatzen ez duena. Kontua da demokraziak jokatzeko duela herritar guztiek gertatzen dena ulertzeko gaitasuna eta informazioa izango balute bezala; eta hori egia ez denez, tabu bilakatzen da. Era horretan, denok hartzen dugu parte jokoan; jokalarik nagusiak ezaugarri jakin batzuk izango dituztela irudikatzen da, baina, praktikan, ez dira benetakoak.

Kontua ez da herritarrak ez duela gaitasunik auzi politikoak eta ekonomikoak ulertzeko, baizik eta ez duela erabiltzen bidezko erabakiak hartzeko behar den informazio egokia. Eta hori ez da hola informaziorik ez dagoelako; aitzitik, informazio gehiegi dugu. Arazoa edukia da, sarritan azalekoa delako eta ez duelako arazoan muinean sakontzen. Kontuan izan behar dugu herritar gehienek telebistaren bidez jasotzen dutela informazioa, eta hedabide hori dela entzuleen kuota presioa gehien nozitzen duena. Hori dela-eta, telebistako albistetan ikusgarritasuna bultzatzen da, eta ez da batere sakontzen.

Herritarrak, batetik, informazio gutxi du, eta, bestetik, ez du motibaziorik. Iritzi-inkestek etengabe azaltzen digute agertoki hori, eta haren ezaugarriak apatia eta politikari zilegitasuna kentzeko joera dira. Hala ere, badirudi munduko hainbat herrialdetan Irakeko gerraren aurka izan diren manifestazio ugariak, itxura batera, ezeztatu egiten dutela hori, alegia, parte-hartzea gutxitu dela. Dena dela, horiek salbuespenak baizik ez dira; eta kasu horietan, bestalde, agerian jartzen da zenbateko alde dagoen gobernuak era-

bakitzen duenaren eta herritarrek benetan nahi dutenaren artean.

Bizitza politikoan zera da arruntena: politika arloan engaiatzen direnak gutxiengoan dauden biztanleriako sektoreak dira (ingurumena babestearren, gutxiengoaren eskubideak onartzearen aldekoak, etab.). Herritar guztiek beren eskubideak osorik erabili ahal izan ditzaten, gune berriak behar ditugu adierazteko, eta herritarrek eraginkorrak izan behar dute eta informazio gehiago eduki behar dute. Demokrazia baldin bada elkarrizketa eta parte-hartzea hobeto bultzatzen duen eredu, gizarteko gatazkak konpontzeko mekanismo gisa, orduan, sistema ordezkatzaila oztupo da benetako parte-hartze eraginkorra lortzeko.

Jardute demokratikoa hobetzeko sistematan sartu diren *prozedura parte-hartzaileak* beren eginkizuna bete dute, eta, hala ere, ez dira aski. Peter C. Dienel-ek esan zuenez, «*gure gizarteko sistema politikoan dauden instituzioek parte hartzeko eta, beraz, arazoak prestatzeko duten gaitasuna aski agortuta dago*» (2002: 40).

Horrek ez du esan nahi dauden gizarte-mugimendu ugariak ez-ikusia egin behar zaienik, eraginkortasun demokratikoa izan baitute politikan parte hartzeko bide gisa. Hala ere, badirudi mugimendu horiek zuten indar eta sorkuntza guztia erakutsi dutela, eta ezin dela haiengandik askoz gehiago espero. Izan ere, ukazina politikari zilegitasuna kentzeko eta politikan ez sinesteko dagoen joera, batez ere politikan dagoen aurpegi nabariari dagokiona —hau da, ordezkari politikoari—. Gero eta gehiago dira botorik ez emateko erabakia hartzen duten boto-emaileak. Ez da harrizkoa, beraz, Gallup International-ek 60 herrialde demokratikotan egin zuen Milurtekoko Inkestan, inkestatutako hamar lagunetik batek baizik ez adieraztea, haren ustez, «bere herrialdeko gobernuak herriaren borondatea betetzen» zuela.

Gobernatzeko modurik egokienei buruzko utopia klasi-koak alde batera utzita, beste agertoki batean, hainbat erantzun eman ahal zaizkio azalduetako zalantzari. Ondo frogatuta dago erantzun batzuk iruzurra direla; eta beste batzuk hortxe daude, ikerketako artikuluetan eta liburuetan artxibaturik, argia ikusteko unerik egokienaren zain. Hala ere, gero eta nabarmenagoa da guztion onura epe luzean babestuz garapen iraunkorra bermatuko duten erabaki politikoak hartzeko, herritarrak behar ditugula ezinbestez, eta ezin dugula jo haien aurka. Hori benetan egin daiteke, ez da desira errukior bat bakarrik. Argi frogatzen dute hori bide horren alde egin duten hiriek eta udalerriek, herritarren parte-hartze handiagoa eta zuzeneko inplikazioa bultzatu duten horiek, alegia. Horra hor, esate baterako, Porto Alegre, Brasilen: bere inguruan dagoen hiririk garbi eta seguru eta-ko bat da gaur egun, eta hori isunik jarri gabe lortu da, jendearen kontzientziarioa baizik ez baita behar izan (El País Semanal, 2001; Genro eta Souza, 2000).

Herritarrek parte hartzeko ereduak garatu ahal izango dira, denboran barrena praktikan jarritz, eta ondorio baliagarriak ateratzeko behar adina denbora hartuta. Hala ere, parte hartzeko metodo horien alderdirik onuragarrienak ez dira asko ustiatu, eta ia ez ditugu sumatzen. Izan ere, esperientzia bakartuak dira, pertsona-talde murrizak barne hartzen dituztenak. Hargatik, ezinbestekoa da zabalkunde-eta eztabaidatze-lana egitea, hala sektore akademikoek, nola alderdi politikoek, herritarren elkarteek eta herritarrek oro har.

Lehen esan dugunez, hau ez da bakarrik ikuspegi akademikotik tankera horretako proiektu gehiago egiteko desira; horrez gain, ezin alboratu daitekeen premiazko beharri zana ere bada; bai, behintzat, gizarteko gatazken hazkunde larria, eta alderdi populisten, autoritarioen edo sistemaren aurkako alderdien agerpena saihestu nahi badugu. Ez ditugu gauzak bere onetik atera nahi, baina 2010eko martxoan Herbehereetan izan ziren hauteskundeetako emaitzak ikusita —lehen aipatu ditugunak—, esnatu eta hausnarketa egin beharko genuke.

OHARRAK

1. Lan honen oinarrian egileak aurrez egin dituen artikulua batzuk daude: «La necesidad de repensar la democracia», *Sistema*, 193 (2006), 3-24, eta «La necesidad de repensar la democracia II», *Sistema*, 203-204 (2008), 95-106.
2. Ikusi, honi dagokionez, Arzheimer (2002), Wolling (1999) eta Gaiser eta beste batzuk (2000).
3. Antzekoak dira Josep Ramoneda-ren hitzak: «Ordezkaritza politikoa utzi, eta intereseko taldeen arabera antolatutako ordezkariak iritsi gara. Gune publikoan, *lobby* moduan antolatzeak gaitasuna duten horiek baizik ez dute hitza. Eta *lobby*-a eratzeko, dirua, kokapena eta hauteskundeetan presioa egiteko ahalmena eduki behar da» (1999: 25).
4. 2000ko martxoaren 12ko hauteskunde orokorrei buruzko gehigarri berezian aipatua, hemen: *El País.com*, 2002/09/05.
5. Hauenschild egile alemanak argi frogatzen duenez, alemanen %2,8 baizik ez da alderdiren bateko militante, eta, bere diagnosiaren arabera, horietatik %5 baizik ez da eraginkortasunez aritzen alderdien jardueretan. Horrek esan nahi du politikan hartzen diren erabakirik garrantzitsuenak biztanleen %0,14k hartzen dituela, eta, hortaz, subiranotasun nazionala herriaren baitan dagoela dioen ideia zentzugabea dela (*Die Zeit*, 1998/07/16).
6. Ignacio Sotelok hauxe idatzi zuen gertakari horretaz: «Gure diputatuak ez dira demokratikoki hautatuak izan diren barruti bateko diputatu, eta ez dira erantzule sentituko boto-emaille horien aurrean. Azken batean, gure diputatuak axola zaie kontu bakarra zerrendan agertzen jarraitzea da; eta, horretarako, ez du ardurarik egiten duten lanak gizartean duen garrantziak, ezta diputatu gisa gizarte-ingurunearekin eratu dituzten harremanek ere. Ardura duen kontu bakarra da nagusiek berari buruz duten iritzia zein den. Orain dela gutxi, estatu federatu bateko (Alemaniako) parlamentuko diputatu batek zera erantzun zion hezkuntzari buruzko galdera bati: "Benetan pentsatzen dudana esaten badizuet, lanpostua galduko dut; eta nire nagusiek entzun nahi dutena esaten badizuet, nire izen ona galduko dut"» (*El País*, 2004/12/24).
7. Geerd Wilders buruzagiaren Askatasunaren Alderdia, 2010eko martxoaren 3an.
8. Pew Center-en inkesta bati jarraiki; hemen aipatua: *El País*, 2010/02/27.
9. Estatuan eta nazioartean egindako esperientzia parte-hartzailei buruzko konparaziozko azterketa ugari eman da argitara. Espainian, gehienak, Subirats, Font, Rebollo eta Gomà irakasleek eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko beste irakasle batzuek prestatu dituzte; adibidez, Rebollo eta Gomà (2001), Font (2001), Font eta Gomà (2001a, 2001b) eta Font (1996, 1998).

Beste azterketa luze bat *Guía práctica para la evaluación de procesos participativos* gida da, Herritarrak Parte hartzeko Nazioarteko Behatokiak 2006. urtean argitara eman zuena. Behatoki hori herritarren parte-hartzea bultzatzen duten udalerrien sare orokor bat, eta bilerak antolatzen ditu urtero, arlo horretan egindako esperientzien emaitzak eta ezagutzak trukatzeko. Aipatu dugun azterketak erabilitako mekanismo guztien «tresna-kutxa» bat du, eta, bertan, mekanismoak zenbait irizpideren arabera daude sailkatuta, hala nola, hauek: prozesua koordinatzea, nork hartzen duen parte, zeri buruz parte hartzen den, nola parte hartzen den eta prozesuaren ondorioak zein diren. Azterketa osoa hemen dago eskuragarri: <<http://www.oidp.net>>.

Bestalde, hauxe da beste ekarpen interesgarri bat —kontuan izanik ez dela mundu akademikotik atera, Tolosako Udaletik baizik, azken urteetan, udal horrek esperientzia ugari antolatu baititu herritarrek parte har dezaten—: *Reflexiones sobre la implicación de la ciudadanía en el incremento de la calidad de las políticas públicas*. Agiri hori hemen dago eskuragarri: <<http://www.tolosa2015.net>>.

10. Ikusi Linda Olson-en deskribapena, hemen: *Open space technology: a new perspective for organizing and perceiving change* (<http://www.openspaceworld.org>).
11. Informazio gehiago hemen <<http://www.charretteinstitute.org>>, <<http://www.theworldcafe.com>>, <<http://www.jefferson-center.org>> eta <<http://www.planungszelle.de>>.
12. Joan Subirats-ek koordinatu duen Espainiako gizarte-ehunaren dentsitateari buruzko azterketa soziologiko batek frogatzen duenez (1999), «indar hilak» esan behar-ko genuke. Liburu horretan aditzera ematen denari jarraiki, besteak beste, Espainian benetan dagoen gizarte zibil bakarra (edo hobeto esanda gizarte ez-zibil bakarra) segizio-zaletasuna eta jauntxokeria izan da; eta «balantzea, oro har, ezin izan daiteke etsigarriagoa, nabaria baita elkartegintza-arloa guztiz azpigaratuta dagoela, konparaziozko ebaluazio bat egiteko oinarri aski ere ez baitago». Hortaz, egileak ez dira ausartzen balantze orokorra egitera, datu esanguratsurik ez dutelako; alabaina, aditu gisa egiten duten balioespina oso ezkorra da.
13. Ikusi komunikazio-kanpaina hauek: «Les ateliers d'initiatives» (2000-2001) eta «Les idées circulent, l'indifférence recule» (2002-2003).
14. Ikusi <<http://www.ippr.org.uk/research>>.

BIBLIOGRAFIA

- ANDRÉ-DUMONT, Florence (2001): *Vade-mecum d'une expérience de participation citoyenne. Le panel de citoyens «Quel Brabant wallon pour demain?»*, Namur, Éditions Fondation pour les Générations Futures.
- ARZHEIMER, Kai (2002): *Politikverdrossenheit. Bedeutung, Verwendung und empirische Relevanz eines politikwissenschaftlichen Begriffs*, Opladen, Westdeutscher Verlag.
- BOURDIEU, Pierre (1984): «L'opinion publique n'existe pas», hemen: *Questions de sociologie*, Paris, Éditions de Minuit.
- CALAME, Pierre, eta André TALMANT (1997): *L'État au cœur, le Meccano de la gouvernance*, Paris, Éditions Charles Léopold Mayer.
- DIENEL, Peter C. (2002): *Die Planungszelle. Der Bürger als Chance*, Opladen, Westdeutscher Verlag, 5. arg.
- DUNLAP, Riley E., Kent D. VAN LIERE, Angela G. MERTIG eta Robert Emmet JONES (2000): «Measuring endorsement of the new ecological paradigm: a revised NEP scale», *Journal of Social Issues*, 56 (3), 425-442.
- EL PAÍS SEMANAL (2001): «Aquí gobiernan todos», *El País Semanal*, 2001/08/12, 19-23.
- FONT, Joan (2001): *Participación ciudadana y decisiones públicas: conceptos, experiencias y metodologías*, <http://www.urbaed.ungs.edu.ar/experiencias_presentacion.php>.
- eta Ricard GOMÀ (2001a): «Experiencias de participación ciudadana a escala local: una perspectiva internacional», hemen: Joan FONT (koord.): *Ciudadanos y decisiones públicas*, Bartzelona, Ariel, 62-68.
- eta Ricard GOMÀ (2001b): «Mecanismos y modelos de participación ciudadana en los municipios españoles»,

- hemen: Joan FONT (koord.): *Ciudadanos y decisiones públicas*, Bartzelona, Ariel, 69-75.
- FONT, Núria (1996): «Los núcleos de intervención participativa (NIP): análisis de tres experiencias», *Gestión y Análisis de Políticas Públicas*, 5-6, 143-149.
- (1999): *Democràcia i participació ciutadana: algunes experiències innovadores*, Bartzelona, Mediterrània.
- GAISER, Wolfgang, Martina GILLE, Winfried KRÜGER eta Johann de RIJKE (2000): «Politikverdrossenheit in Ost und West?», *Aus Politik und Zeitgeschichte*, B 19-20.
- GARRIDO, Francisco Javier (2002): «Planificación participativa para el desarrollo local», hemen: Francisco Javier GARRIDO eta Tomás RODRÍGUEZ-VILLASANTE (koord.): *Metodologías y presupuestos participativos*, Madril, CIMAS (Observatorio Internacional de Ciudadanía y Medio Ambiente Sostenible), 123-152.
- GENRO, Tarso, eta Ubiratan de SOUZA (2000): *El presupuesto participativo: la experiencia de Porto Alegre*, Bartzelona, Ediciones del Serbal.
- GERTNER, Jon (2009): «Un reto para el cerebro», *El País Semanal*, 1728 (2009/11/08), 84-86.
- HARMS, Hans (2005): «El empleo no es la solución», <<http://www.nodo50.org/redrentabasica/>>, 2005/12/28.
- (2006): «La necesidad de repensar la democracia», *Sistema*, 193, 3-24.
- (2008): «La necesidad de repensar la democracia II», *Sistema*, 203-204, 95-106.
- (2009a): «Crisis? What Crisis?», *Diario Vasco*, 2009/03/28. Hemen dago eskuragarri: <<http://www.ecopolitica.org/>>.
- (2009b): «La fiesta se acabó», *Fundación Sistema*, <<http://www.sistemadigital.es/>>, 2009/08/03.
- (2010): «La era de la estupidez», *Temas para el Debate*, 185.
- HERAS HERNÁNDEZ, Francisco (2005): «La educación y la participación social, claves para una nueva cultura energética frente al cambio climático». Energy Forum biltzar europarrean aurkeztutako txostena, Iruñea, Centro de Recursos Ambientales de Navarra, 2005eko ekainaren 15etatik 17ra.
- HERMET, Guy (1993): *Les désenchantements de la liberté*, Paris, Fayard.
- KRASTEV, Ivan (2010): «El ciudadano se aleja de sus líderes», *El País*, 2010/02/27.
- MANIN, Bernard (1998): *Los principios del gobierno representativo*, Madril, Alianza Editorial.
- PERRINEAU, Pascal (2003): *Le désenchantement démocratique*, Paris, Éditions de l'Aube.
- RAMONEDA, Josep (1999): *Después de la pasión política*, Madril, Taurus.
- REBOLLO IZQUIERDO, José Óscar, eta Ricard GOMÀ (2001): «Innovación democrática: nuevas formas de participación ciudadana en la esfera local», hemen: Joan FONT (koord.): *Ciudadanos y decisiones públicas*, Bartzelona, Ariel, 203.
- RODRÍGUEZ VILLASANTE, Tomás (1996): «¿Qué democracia? La democracia participativa realmente existente», *El Viejo Topo*, 100, 26-34.
- SEELING, Carl (arg.) (1973): *Ideas and Opinions by Albert Einstein*, New York, Dell Publishing.
- SEMPERE, Joaquim, Mercedes MARTÍNEZ IGLESIAS eta Ernest GARCIA (2007): *Ciencia, movimientos ciudadanos y conflictos socioecológicos*, Bilbao, Bakeaz (Cuadernos Bakeaz, 79).
- SUBIRATS, Joan (1999): *¿Existe sociedad civil en España? Responsabilidades colectivas y valores públicos*, Madril, Fundación Encuentro.
- (2005): «Democracia participativa: aprendiendo a participar y construyendo ciudadanía». Demokrazia Parte-hartzailearen Nazioarteko Erakundearen V. Biltzarrean aurkeztutako txostena, Donostia, 2005eko azaroaren 29a.
- UNCETA, Koldo (2010): «Reflexiones en torno a un fracaso», *Diario Vasco*, 2010/02/08.
- WOLLING, Jens (1999): *Politikverdrossenheit durch Massenmedien? Der Einfluss der Medien auf die Einstellungen der Bürger zur Politik*, Opladen, Westdeutscher Verlag.
- WOLTON, Dominique (2003): *L'autre mondialisation*, Paris, Flammarion.



Hans Harms, *Ohar kritikoak eta irizpide praktikoak ingurumeneko gatazkak parte-hartzearen bidez konpontzeko*, Cuadernos Bakeaz, 96. zk.

Jatorrizko titulua: *Apuntes críticos y criterios prácticos para la resolución participativa de conflictos ambientales*

Gaztelaniazko testuaren itzulpena: Irene Hurtado Mendieta.

© Hans Harms, 2009; © Bakeaz, 2009.

Koaderno hau argitaratu ahal izan dugu **Eusko Jaurlaritzaren** Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Biodibertsitaterako Zuzendaritzak eta **Fundación Biodiversidad** fundazioak emandako finantziarioi esker.

Lanotan adierazitako iritziak nahitaez ez datoz bat Bakeaz erakundeak dituenekin.

Cuadernos Bakeaz argitalpen monografikoa eta bi hilez behingoa da eta zentroari lotutako edo zentroarekin lankidetzan aritzen diren jendeak egiten du. Defentsaren ekonomia, lankidetzak politikak, bakerako hezkuntza, geopolitika, gizarte mugimenduak, ekonomia eta ekologiarri lotutako gaiak jorratzen ditu; era berean, gai horietan interesa duten pertsona edo erakundeak ikerketa labor eta zorrotzak eskaintzen ahalegintzen da pentsamolde kritikoa oinarrituta eta arazo horiekiko konpromisotik abiatuta.

Argitalpenaren zuzendaria: Josu Ugarte • **Koordinazio teknikoa:** Blanca Pérez • **Aholkulariak:** Martín Alonso, Joaquín Arriola, Nicolau Barceló, Anna Bastida, Roberto Bermejo, Jesús Casquete, Xabier Etxeberria, Adolfo Fernández Marugán, Carlos Gómez Gil, Rafael Grasa, José Carlos Lechado, Arcadi Oliveres, Jesús M.^a Puente, Jorge Riechmann, Juan Manuel Ruiz, Pedro Sáez, Antonio Santamaría, Angela da Silva, Ruth Stanley, Carlos Taibo, Fernando Urruticoechea • **Azken argitaratutako tituluak:** 66. Lara González Gómez y Clara Murguialday Martínez, *Evaluar con enfoque de género*; 67. Mireia Espiau, Dominique Saillard y Rafael Ajangiz, *Género en la participación. Un camino por recorrer*; 68. Antxon Gallego, Manuel Fernández y Efrén Feliu, *Criterios generales para la planificación de procesos participativos*; 69. Roberto Bermejo, David Hoyos y David Guillamón, *Análisis socioeconómico del Plan Estratégico de Infraestructuras y Transporte 2005-2020*; 70. Roberto Bermejo, *Del fin de la era del petróleo a la economía solar*; 71. Gabriel Pons, *Políticas agrarias y cooperación*; 72. Carlos Gómez Gil, *Nuevas vías para el codesarrollo en la cooperación descentralizada*; 73. Ignacio Álvarez-Ossorio, *El mundo árabe: entre la tradición y la modernidad*; 74. Martín Alonso, *Relatos exclusivos, políticas excluyentes. El patrón de Oriente Próximo*; 75. Iñaki Gorozpe, *Guinea Ecuatorial: crecimiento sin desarrollo*; 76. Carlos Gómez Gil, *El dilema de los microcréditos en las políticas de desarrollo*; 77. Sophie Caratini, *La prisión del tiempo: los cambios sociales en los campamentos de refugiados saharauis*; 78. Jorge Riechmann, *Monetización de los impactos del cambio climático: problemas y debates*; 79. Joaquim Sempere, Mercedes Martínez y Ernest Garcia, *Ciencia, movimientos ciudadanos y conflictos socioecológicos*; 80. Martín Alonso, *¿Sifones o vasos comunicantes? La problemática empresa de negar legitimidad a la violencia desde la aserción del «conflicto» vasco*; 81. Jesús Casquete, *Agitando emociones. La apoteosis del héroe-mártir en el nacionalismo vasco radical*; 82. Aleksí Ylonen, Mayra Moro Coco y Juan Álvarez Cobelas, *Costa de Marfil: entre la violencia y el desarrollo*; 83. Carlos Gómez Gil, *Los Objetivos del Desarrollo del Milenio y la cooperación descentralizada*; 84. Ana Izquierdo Lejardi y Laura Rodríguez Zugasti, *El comercio justo como herramienta de consumo responsable*; 85. Florent Marcellesi, *Ecología política: génesis, teoría y praxis de la ideología verde*; 86. Efrén Areskurrinaga, *La liberalización agrícola y el aumento de la inseguridad alimentaria mundial*; 87. Andrés Cabanas, *La encrucijada de Guatemala: regresión autoritaria o democracia participativa*; 88. Florent Marcellesi e Igone Palacios, *Integración de consideraciones de sostenibilidad en la cooperación para el desarrollo* (euskaraz ere eskuragarri); 89. Carlos Gómez Gil, *Una visión panorámica de la cooperación descentralizada de las entidades locales*; 90. Xabier Etxeberria, *Referentes éticos ante la expansión empresarial en el Sur*; 91. Ignacio Álvarez-Ossorio Alvaríño, *La situación humanitaria de Gaza*; 92. Mario Roberto Solarte, *Colombia: simetrías violentas y alternativas que emergen de la memoria*; 93. Andrea Ruiz Balzola, *La perspectiva transnacional de las migraciones: desafíos e implicaciones prácticas*; 94. F. Javier Merino, *El espejismo revolucionario: la izquierda radical ante ETA*; 95. Amaia Unzueta Sesumaga, *Asociacionismo de mujeres inmigrantes latinoamericanas y codesarrollo en el País Vasco: condicionantes y posibilidades*; 96. Hans Harms, *Apuntes críticos y criterios prácticos para la resolución participativa de conflictos ambientales* (euskaraz ere eskuragarri) • **Diseinua:** Jesús M.^a Juaristi • **Maketazioa:** Mercedes Esteban Meriel • **Inprimatzailea:** Grafilur • **ISSN:** 1133-9101 • **Lege-gordailua:** BI-295-94.

Urteko harpidetza (6 zenbaki): 24,00 euro • **Ordaintzeko modua:** bankuan helbideratuta (adierazi 20 digituak, entitateari, sukurtsalari, kontrolari eta kontu korronteari dagozkionak) edo Bilbao Bizkaia Kutxako 2095/0365/49/3830626218 kontu korrontera transferentzia eginda • **Ale solteak eskuratzea:** koaderno hauek eta Bakeaz erakundeak beste argitalpen batzuk jasotzean ordaintzeko eska daitezke (4,00 euro bidaltze-gastuengatik) behean adierazitako helbidean. Ale bakoitzaren prezioa 4,00 euro da.

Bakeaz 1992an sortutako gobernu kanpoko erakunde da eta ikerketan aritzen da. Unibertsitateekin, bakezaletasunarekin, giza eskubideekin eta ingurumenarekin lotutako pertsonak sortu zuten, eta haren helburua hainbat gairi buruzko gogoetarako eta gizalegezko ekintzarako irizpideak ematea da; hala nola, nazioarteko harremanen militarizazioari buruz, segurtasun politikei buruz, armen ekizpen eta salerosketari buruz, ekonomia eta ekologiarren arteko lotura teorikoari buruz, politika hidrológicoari eta uraren kudeaketari buruz, Tokiko Agenda 21eko prozesuei buruz, kooperazio politikei edo bakerako heziketari buruz eta giza eskubideei buruz. Jarduera horiek garatzeko, liburutegi espezializatu bat du; aditu sare zabal baten parte hartzeari esker, azterketak eta ikerketak egiten ditu; hainbat liburu eta berripaper teoriko sortatzen, bere ikerketak eta nazioarteko erakundeekin ikerketak argitaratzen ditu —besteak beste, Worldwatch Instituterekin, ICLEIrenak eta UNESCOrenak—; ikastaroak, mintegiak eta hitzaldi zikloak antolatzen ditu; elkarte, erakunde eta komunikabideei aholkuak ematen dizkie; egunkarietan eta aldizkari teorikoetan artikulatuak argitaratzen ditu; eta mintegietan eta biltzarretan parte hartzen du.

Arriquirar plaza, 3-1. esk. • 48008 Bilbo • Tel.: 94 4790070 • Faxa: 94 4790071 • Posta elektronikoa: bakeaz@bakeaz.org • <http://www.bakeaz.org>